# EUSKADI
## txakurrarekin

DOG-FRIENDLY IBILBIDEAK ETA LEKUAK, ETA BI ETA LAU
ZANGODUN FAMILIENTZAKO INFORMAZIO PRAKTIKOA






EUSKADI
BASQUE COUNTRY

Doggyetorri!




Euskadi helmuga paregabea da txakurrarekin… eta arduraz gozatzeko. Datozen orrialdeetan, dozenaka dog-friendly plan eta ehunka ostatu, jatetxe, saltoki eta erakargarri turistiko aurkituko dituzue, zuen lagunik onenarekin ere ongi etorria egingo dizuetenak. Txakurrarekin egiteko planik onenez gozatzea opa dizuegu, baina ez ahaztu negozioen eta udalen (espazio publikoen arautzaileen) arauak errespetatzea beti.  Inguru bakoitzari buruzko informazio praktikoan aurkituko duzue argibide eta xehetasun gehiago. Inora joan baino lehenago, leku horri buruzko informazioari begiratua egitea gomendatzen dizuegu.

Argitalpena: 2025eko ekaina • © Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila • Argitaratzailea: BASQUETOUR TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA SA • Diseinua eta maketazioa: Ana Fernández @anaefe • Argazkiak: Mestizaa eta beste zenbait egile.

Debekatuta dago argitalpen honetako testuak, mapak eta irudiak zatika eta/edo osorik erreproduzitzea, erakunde argitaratzailearen eta egileen aldez aurreko baimenik gabe.

Hondartzei eta aisialdirako eremuei buruzko araudia 2025eko ekainean (liburuxka hau argitaratzen denean) indarrean dagoena da. Baliteke arau horiek aldatzea; beraz, kontsulta ezazu informazio eguneratua. Horretarako, jarri harremanetan dagozkion udalekin edo saltokiekin.

# EUSKADI txakurrarekin

AURKIBIDEA


Euskadi: helmuga paregabea . . . . . . . . . . . . . . 4

Bilbo txakurrarekin . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 6

Donostia txakurrarekin . . . . . . . . . . . . . . . . 16

Gasteiz txakurrarekin. . . . . . . . . . . . . . . . . . 22

Euskal kostaldea txakurrarekin . . . . . . . . . 28

Euskadiko mendi eta bailarak txakurrarekin. 36

Arabako Errioxa txakurrarekin. . . . . . . . . . 42

Erakargarri turistiko nagusien dog-friendly politikaren laburpena eta araudia . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 46


# Txakurrarekin gozatzeko helmuga paregabea

**Diotenez, euskaldunak nobleak dira, hitzetan labur baina ekintzetan luze. Gure txakurrak bezalakoak, alegia. Agian horregatik, Euskadira bazatoz, berehala nabaritu duzu gure lau hankako lagun txikitxoei diegun maitasuna. Baina, jendea ez ezik, beste arrazoi batzuk ere badaude lau hankako lagunarekin etortzeko Euskadira:**

### Helmuga osoa

Landa-tradiziotik eta mendi eta bailaren berdetik hasita, hiri ibilgarrien modernotasunera, eta beste gauza asko tartean: itsasoa, hondartzak, labarrak, portuak… Familiako kide guztiek, bi nahiz lau hankadunek, gozatzeko oreka paregabea.

### Klima gozoa

Euskadi urte osorako helmuga aproposa da: ez dauka muturreko hotzik neguan, ez bero itzelik udan. Zure txakurrak eskertu egingo dizu, eta urteko edozein garaitan txango ederrak egiteko aukera izango duzue. Hori bai, hainbesteko berdea ordaindu egin behar da, eta gerta daiteke egun euritsuren bat gertatzea. Baina hori ez da gure abenturetarako oztopoa, ezta?


EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

EUSKADI BASQUE COUNTRY
#Basquexperience



# Euskadira bidaiatu aurretik

Bisita ezazu albaitaria azterketa orokor bat egiteko; ez dugu ezustekorik nahi bidaian. Bidaian eraman beti albaitari-kartilla, eguneratuta. Eta gogoratu, Euskal Autonomia Erkidegoan, txakurren amorruaren aurkako txertoa jartzea derrigorrezkoa dela 2022tik; beraz, zure txakurrak behar bezala txertatuta egon beharko du bisita egin behar badiguzu.

Gogorarazi nahi dizugu, halaber, 2023tik aurrera nahitaezkoa dela erantzukizun zibileko aseguru bat izatea, zure txakurrak hirugarrenei eragin diezazkiekeen kalteak estaltzeko, txakurraren arraza edozein dela ere. Eta ostatu gehienetan dokumentazio hori eskatuko dizute.

Zeure txakurra eroso egon dadin pentsatuta planifika ezazu egonaldia, bila ezazu larrialdietarako albaitari bat, baita txakurrentzako zaindegi edo hotel bat ere. Hor zure txakurra utzi ahal izango duzu zenbait orduz, jarduera jakin bat egin behar baduzu eta hark ezin badizu lagundu edo harentzat hura estresagarria bada (gaueko kontzertuak, museoetan bisitak egitea...).

Beste herrialde batzuetatik Euskal Autonomia Erkidegora bidaiatuz gero, txertaketa-baldintzak oso ezberdinak izan daitezke herrialde batetik bestera; horregatik, aholkua da beti abiapuntuko herrialdearen enbaxadan edo kontsulatuan edo hango albaitaritza-agintaritza ofizialean aldez aurretik kontsultatzea, informazio eguneratuena izateko eta mugan arazorik ez izateko.



# Nola iritsi txakurrarekin Euskadira

**Hegazkina -** Euskal Autonomia Erkidegorako hegaldiak egiten dituzten aire-konpainia askok txakurrak onartzen dituzte kabinan (8 eta 10 kg-raino) edo, handiagoak badira, bodegan. Arauak aldatu egiten dira konpainiaren arabera.

**Trenez -** Renferen tren guztietan onartzen dute 10 kg-rainoko txakur bat bidaiari bakoitzeko, bidaia-kutxan sartuta bada.

**Itsasontziz -** Brittany Ferries konpainiak 5 txakur onartzen ditu, gehienez, bidaiari bakoitzeko. Horretarako, ordea, ibilgailu eta guzti egin behar da bidaia.

*Xehetasun gehiago aurkituko dituzue garraiobide horien webguneetan.*

**Euskadi helmuga paregabea da autoan edo autokarabanan ibiltzeko:** leku batetik besterako tarteak motzak izaten dira (ordubeteko tartea hiru hiriburuen artean) eta, horri esker, oso-osorik aprobetxatuko duzue lur magiko honetako egonaldia.



# Txakurrarekin bidaiatzen baduzu, utzi aztarna



**Egunetik egunera ohikoagoa da gure lau hankadun lagunarekin bidaiatzea; ezin ditugu gure erantzukizunak ahantzi, ordea.**

Eraman ezazu beti txakurra **hurbil, kontrolatuta eta ondo garbituta**. Zura txakurraren kakak jasotzeko poltsatxoak dira zure aliaturik onenak. Era berean, ez ahaztu botila bat ur eta detergente desinfektatzailea eramatea, gernua garbitzeko. Euskal Autonomia Erkidegoan, Bilbon zehatz-mehatz, nahitaezkoa da bide publikoan txakurren jabeek beren maskoten gernua garbitzea.

Hurrengo orrialdeetan «dog-friendly» kafe, lokal eta ostatu ugari aurkituko dituzu. Erreserbatzen duzunean, ez ahantzi ohartaraztea **lagunduta iritsiko** zarela. Hori eginez gero, hobeto artatuko zaituzte eta zuontzako guztiontzako lekua egongo dela ziurtatuko duzu.

Txakurrarentzako zira **ekartzea** aholkatzen dizugu. Gerta daiteke egonaldian egun euritsuren bat edo beste edukitzea. Zirari esker, lehor eta garbi sartuko zarete zure eta zure lagunaren zain dauden «dog-friendly» hotel eta lokal guztietan.

Irakurri beti lokal bakoitzak zer **politika duen** txakurrarekin sartzen diren bezeroekin; eta gustukoa ez baduzu, joan beste norabait. Horri errespetatuz soilik lortuko dugu bizikidetza posible dela frogatzea.

Landan eta mendian ibiltzen zarenean, txakurra **uhal luze** batekin erabiltzea gomendatzen dizugu; horrela ez duzu ustekaberik izango bidean aurkituko dituzun baserrietako txakur zaindariekin.

Pentsatu txakurrak **eroso eta seguru** egon behar duela; ez behartu plan estresagarrietan parte hartzera; horri esker, denok gozatuko duzue ikararik gabe.

**Jardun koherentziaz eta pentsatu txarto jokatzen dugun bakoitzean, denok nahi dugun elkarbizitzatik urruntzen garela; eta, ildo beretik, esperientzia positiboa bada, gero eta onarpen handiagoa lortuko dugula.**

**Froga dezagun alderdi guztiok zentzuz eta elkarrekin bizitzeko asmoz jokatuz gero, gizarte «dogfriendlyagoa» lortuko dugula.**

Utz dezagun aztarna,
baina aztarna ona.



# Bilbo

Zeure txakurrarekin hiri-abentura ezin ederragoaz gozatzeko leku aproposa da Bilbo: parke eta pasealeku zabalak, bizitzaz betetako kaleak, kultura gastronomiko bikaina eta txakurrekiko maitasun handia. Ez ahantzi Puppyrekin, herrialde osoko txakur handienarekin, argazkia egitea!

## Bilboko Itsasadarrean txakurrarekin

**Bilbo ezagutzen hasteko ibilbiderik esanguratsuenetako bat proposatzen dizuegu. Nerbioi itsasadarrari, garai bateko Bilboko industriaren ardatzari, jarraituz espazio ireki zabalak aurkituko dituzue; belar freskoaren usainez nahiz itsaso-usainez jantzitako etorbideak… Eta, horrela, Zazpikaleen bihotzeraino helduko zarete: modernotasuna eta tradizioa uztartzen dituen eremua, pintxoak, bermutak eta itsasertzaren bazterreko elkarrizketa luzeak tarteko.**



**Carola garabian** helduko diogu ibilbideari, hiriko ontziolen iragana gogoratuz.

Berehala egingo dugu topo **Euskalduna Jauregiaren** fatxada deigarriarekin: altzairuzko xafla ugertuz eginda dago, eraikitze-bidean dagoen ontzi baten kaskoa adierazteko.

Itsasertzetik gora (kontuz ibili txakurra ur-zalea bada, ez dezan txonbo egitea erabaki) **Iberdrola dorrea** aurkituko dugu. Lorategi eta zelai berdez inguratuta dago, zure lagun iletsuaren gozamenerako.

Itsasadarraren beste aldean, **Deustuko Unibertsitatearen** campuseko eraikin dotoreak ikusiko ditugu (2002an monumentu historiko izendatu zuten). Eta, berehala, ibilbideko ikuspegi ederrenetako batera helduko gara: **Guggenheim Museora.**



**Txakurren lagunentzako aholkua:** *txakur eta guzti etorri arren, nahitaezko bisita da Guggenheim. Txakurra ordu batzuetan gustura eta egoki lagatzeko zaindegi ugari daude.*

Txakurra armiarmen beldur edo armiarmak jateko zalea bada, espero dezagun korrika ez hastea edo haginkadarik ez egitea **«Ama»**ri. 9 metro altuerako brontzezko eskultura da, Louise Bourgeois artegile frantses-amerikarrak egindakoa.

Bidean aurrera, Santiago Calatrava arkitektoak diseinatutako **Zubizuri aurkituko** dugu. Zeharkatu eta txangoa itsasadarraren beste aldetik jarraitzeko aukera egokia da.



Pixkanaka, geroz eta jende gehiago ikusiko dugu. **Bilboko udaletxera** eta **Arriaga antzokira** hurreratzen ari gara. XIX. mendearen amaieran eraiki zituzten, Joaquin Rucoba arkitektoak diseinatuta.

Bi eraikinen artean, erdibidean, **Areetako lorategiak** ikusiko ditugu: umeak olgetan, txakurrak ibilian eta auzokideak aisialdiaz gozatzen ikusteko leku ezin egokiagoa.

Honezkero zarata nabarmena da: Bilboko **Zazpikaleen** atarian gaude. Bertan biltzen da hiriko merkataritza-, ostalaritza- eta gastronomia-jardueraren zati handia.

**Txakurren lagunentzako aholkua:** *plana Zazpikaleetan pintxotan ibiltzea izaten da. Gogoan izan jaiegunetan, bazkalorduan eta afalorduan jende asko biltzen dela eremu horretan, zotzak egoten direla behegainean… Ahalegindu zaitez jende gutxiago dagoenean joaten bertara txakurrarekin, edota espazio zabalagoetan ibiltzen. Inork baino hobeto ezagutzen duzu zeure txakurra; ez ahaztu inoiz haren ongizatea.*

Kaleetan zehar bapo ibili ostean, aurkitu berriro itsasadarrera doan kaleetako bat. **Erriberako merkatuaren** fatxada ederra aurkituko duzue han (2013an birmoldatu zuten). Zubietako bat zeharkatu eta **Bilbo Zaharrean** (Bilbi ere esaten diote) amai dezakezue ibilbidea. Hiriko gune kultural, musikal, gastronomiko… alternatiboenetakoa da. Hankak lasaitzeko, zerbait hartzeko edo bertako dog-friendly lokal askoetako batean zerbait jateko leku apropos-aproposa.



**Bon appetit, merezia duzue!**




***Denbora: 2 ordu** inguru (halere, Zazpikaleetan lasai ibiltzea eta txakurrak presarik gabe lagun berriak egiteko astia hartzea aholkatzen dizuegu). Iturri ugari aurkituko dituzue ibilbidean.*

***Plan ederra da** txakur nahiz gizaki ibiltariek hirigunneko espazio irekiez gozatzeko.*

***Txakurzaleentzako pista:** ibilbidea oinez egin nahi baduzue baina presaz bazabiltzate edo zaparrada batek bide erdian harrapatzen bazaituzte, jakin behar duzue ibilbidean Bilboko tranbiaren geltokiak aurkituko duzuela eta hiri-garraio horretan zure laguna ongi etorria dela.*

# Bilbo berdea

**Bizkaiko hiriburuaren bihotzean espazio berde zabalak ere aurkituko dituzu, zure txakurrak lagun berriak egiten dituen bitartean, plan erlaxatuago batez indarrak berreskuratzeko. Ondo pasatzen dakiten Bilboko txakur ugari ibiltzen diren bi espazio handi proposatzen dizkizugu.**





## Etenalditxoa Casilda parkean

100.000 m2 baino gehiagoko **berdegunea eta zuhaiztia**, zure lagunak Bilboko txakurrik finenak aurki ditzan belardian korrika. Gainera, **aisialdirako gune** bat ere badauka, txakurra solte, uhalik gabe ibiltzeko. Ordutegia:

· *Neguan (azarotik maiatzera): 19:00etatik 11:00etara.*
· *Udan (ekainetik urrira) 20:00etatik 11:00etara.*

***Denbora: 30 min - 1 ordu.** Gogoan izan lagunak beti uhalaz lotuta egon behar duela, solte ibiltzeko eremuetan eta ordutegian izan ezik. Eta ez ahantzi lagunak utzitako «oparitxoak» biltzea.*

***Plan ederra da** eguna leher eginda amaitzeko eta zure lagunak ezin gusturago lo egiteko.*

## Ikuspegi bikaineko txangoa Artxandan

**«Botxoaren»** ikuspegi bikainaz gozatzeko. Dagoeneko mende bat baino gehiago duen **Artxandako funikularrean** lau hankadun laguna eta biok joan zaitezkete, azken bagoian. Funikularraren plazan har dezakezue, **Zubizuri** zubitik hurbil. Minutu batzuk dirauen igoaldiaren ondoren iritsiko zarete **Artxandara** eta bertako zuhaizti ederretara, bidexka ugarietara... eta erraz ahantziko ez duzun ikuspegi batera.

***Denbora: 1 ordu.** (ikuspegiez lasai gozatzeko, txango laburra egiteko eta jaitsi aurretik zertxobait hartzeko ere bai).*

***Plan ederra da** hiria zeharkatu ondoren igotzeko, eta bisitatu dituzun leku guztiak lokalizatzen ahalegintzeko.*

***Oharra:** autoz ere joan zaitezkete, baina Bilboko hirigunetik errazagoa (eta atseginagoa) da funikularra erabiltzea.*

# Bizkaiko Zubia eta Getxo.

**Bilbotik ordu erdi eskasera aurkituko ditugu Portugalete, Santurtzi eta Getxo. Hiru udalerri horiek inguratzen dute Ibaizabalen bokalearen ikuspegi aparta. Izan ere, ezkerraldean industria-jarduera nagusitzen den bitartean, eskuinaldean Getxoko portuko jarduera ludikoagoak nabarmentzen dira; adibidez, gurutzaontziak porturatzeko gunea.**







Gizateriaren ondare izendatutako **Bizkaiko Zubia** izango da **gure abiapuntua**. Zubi garraiatzaile horrek 1893az geroztik lotzen ditu Ibaizabalen bi aldeak.

Hemen, ibilaldi luze bat hasiko duzue itsaso ondoan, Areetako kaian barrena, euskal burgesiaren etxe handiak zeharkatuz, Ereaga hondartzara iritsi arte. Bertan, uda-sasoian, 20:00etatik 09:30era zeure txakurrarekin gozatu ahal izango duzu; denboraldi horretatik kanpora, ordu-murrizketarik gabe.

Gosetuta bazaudete, txibierroak edo arrain freskoa dituzue eskura inguruko «dog-friendly» jatetxeetan edo terrazetan, dela **Kirol Portuan**, **Portu Zahar** xarmangarrian eta bertako eskaileren inguruan, edo goiko aldean, **Algorta** auzoan.

Oraindik indartsu, aurrera jarraitu nahi duzuenok **Arrigunagako** hondartzaraino joan zaitezkete eta handik, **Galeako labarretan** zehar **Azkorriraino**, Getxoko azken hondartzaraino.

*NOLA HELDU TXAKURRAREKIN GETXORAINO, GARRAIO PUBLIKOA ERABILIZ.*

*Bilboko metroak zenbait geraleku ditu Getxon, baina 8 kg-tik beherako txakurrak besterik ez ditu onartzen ditu. Txakur handiagoa baduzu, aldirietako Renfe hartzea gomendatzen dizugu (bidaiari bakoitzeko txakur bat onartzen du, berdin dio tamaina, baina beti muturrekoa ipinita). Izan ere, Renferen geraleku bat dago Portugaleten.*

*Begiratu Bizkaiko zubiaren «dog-friendly» politika «informazio praktikoan».*

***IBILALDI LABURRA: BIZKAIKO ZUBIA – PORTU ZAHARRA***

***Denbora: 1 ordu.*** *Bizkaiko Zubitik Getxoko Portu Zaharrera (joaneko bidea soilik).*

***Plan ederra da*** *itsasertzean ibilaldi lasaia egiteko eta, bidean, Bilbo Handia eta inguru aparta hori ezagutzeko.*

***IBILALDI LUZEA: BIZKAIKO ZUBIA - AZKORRI***

***Denbora: 3 ordu.*** *Bizkaiko Zubitik Azkorriko hondartzara (joaneko bidea soilik)*

***Plan ederra da*** *itsasertzeko bideak pauso arinez egitea gustatzen zaienentzat. Ezinbestekoa da kirol-oinetakoak eramatea!*



# Bilbo: Informazio praktikoa

Dog-friendly negozio onenak aurkituko dituzu hemen, txakurrentzako aisialdi-eremuak eta garraioak. Zu eta zure txakurra ongi etorriak izango zarete bertan. Gogoratu beti txakurren sarbideari buruzko politika osoa eta eguneratua kontsultatu behar duzula, baita argazkiak, iritziak, kokapen zehatza eta harremanetarako beste moduak ere, negozioen webgunean edo txakurrekiko turismo eta aisiari buruzko orri espezializatuetan.







## OSTATUAK

**Bilbo**

**Artetxe hotela ****
+34 944 747 780

**Caravaning Kobetamendi**
+34 944 655 789

**Pensión Casual Gurea ****
+34 944 163 299

**Melia Bilbao hotela*******
+34 944 280 000

**Petit Palace Arana Bilbao hotela*****
+34 944 156 411

**Sercotel Ayala hotela******
+34 946 535 229

**Gran Bilbao Spirit hotela******
+34 944 328 575

**Tayko Bilbao hotela******
+34 944 652 070

**Getxo**

**Getxo Estilo apartamentua**
+34 650 282 944

**Embarcadero hotela******
+34 944 803 100

**Ercilla hotela******
+34 944 705 700

**Getxo Tranquility apartamentuak*****
+34 650 282 944

**Petit Palace Tamarises hotela*****
+34 944 915 092

**Santurtzi**

**Palacio de Oriol URH hotela ******
+34 944 934 100

**Sestao**

**Naval Sestao hotela*****
+34 944 186 216

## TABERNAK ETA JATETXEAK

**Arrigorriaga**

**Mendikosolo jatetxe-erretegia**
+34 946 715 291

**Barakaldo**

**Lula's Bakery kafetegia**
+34 611 512 916

**Bilbo**

**Alpamayo jatetxea**
+34 944 715 967

**Bar Antigua Cigarrería**
+34 944 248 973

**Antxoa Taberna**
+34 944 594 631

**Attico14**
+34 946 072 137

**Bar Las Ruedas**
+34 605 715 532

**Bar Marzana**
+34 946 753 036

**Basquery jatetxea**
+34 944 072 712

**Café Bar Palacio Arana**
+34 946 944 242

**Café Brasil**
+34 944 165 484

**Café Negro Y Blanco**
+34 944 160 992

**Olimpia jatetxea**
+34 944 440 347

**Casa del Café y del Té**
+34 944 416 665

**Arbolantza garagardotegia**
+34 944 124 193

**Bar Clover House**
+34 946 039 312

**Copper Deli Mazarredo jatetxea**
+34 946 570 899

**Coppola Bilbao jatetxea**
+34 944 249 463

**De Boca Madre jatetxea**
+34 944 103 552

**Deustuko Batzokia jatetxea**
+34 944 050 658

**Bar Dock Bilbao**
+34 944 024 643

**Bar Eguzki**
+34 944 751 132

**El Laterío**
+34 665 948 696

**Gastronomía Bilbao jatetxea**
+34 722 524 365

**Happy River Bilbao jatetxea**
+34 682 113 713

**Islares jatetxea**
+34 747 421 086

**La Camelia Vegan Bar**
+34 946 112 612

**Bar La Ley Seca**
+34 628 927 968

**La Lonja de Olabeaga jatetxea**
+34 662 300 994

**La Sinsorga taberna-kafetegia**
+34 944 028 475

**Lurrina jatetxea**
+34 944 163 277

**Morrocotuda jatetxea**
+34 671 765 241

**Bar Mr. Marvelous**
+34 944 249 759

**Porrue jatetxea**
+34 944 231 313

**Promenade**
*Bermutegia eta tapa-taberna*
+34 944 070 429

**Astuy taberna**
+34 944 051 363

**Terraza Quatre jatetxea**
+34 944 280 000

**Txocook jatetxea**
+34 944 005 567

**Vertix jatetxea**
+34 944 420 608

**Bar Vía De Fuga**
+34 944 001 348

**Zubiburu jatetxea**
+34 944 064 006

**Zubizuri jatetxea**
+34 944 057 752

### Galdakao

**Zurrut Taberna**
+34 688 630 214

### Getxo

**Fangaloka taberna-erretegia**
+34 627 632 103

**Goiezti erretegia**
+34 944 912 593

**La Ola jatetxea**
+34 944 606 722

### Leioa

**Bar Back Street Lounge**
+34 944 802 738

### Portugalete

**Monika kafetegia**
+34 944 831 856

**Bar Casa Vicente**
+34 944 961 448

## SALTOKIAK

### Barakaldo

**Bizi Slow**
*Denda ekojasangarria*
+34 688 774 651

**Leroy Merlin Barakaldo**
+34 944 859 600

### Bilbo

**[aparté]**
*Moda eta osagarriak*
+34 944 151 778

**A&J Complementos**
+34 944 794 116

**Ametsak**
*Liburu-denda, paper-denda eta jolas didaktikoak*
+34 667 905 166

**Artea higiezinen etxea**
+34 944 794 800

**Avenue Hair Salon**
+34 944 658 658

**Bizislow Santutxu**
*Denda ekojasangarria*
+34 688 774 651

**Boutique de la Media**
+34 649 986 532

**Cardenal Casco Viejo**
*Moda eta osagarriak*
+34 944 157 586

**Cardenal Indautxu**
*Moda eta osagarriak*
+34 946 404 232

**Zubiarte merkataritza-gunea**
+34 944 277 383

**Elekma Serantes**
*Teknologia eta etxetresna elektrikoak*
+34 944 163 518

**George & Mildred**
*Publizitate-agentzia eta diseinu grafikoko estudioa*
+34 944 417 626

**Flor De Hibisco belar-denda**
+34 946 072 770

**Somera higiezinen etxea**
+34 946 790 350

**Koena Salud**
+34 946 856 584

**La Barbería del Norte**
+34 944 740 128

**La Fabrique Peluqueros**
+34 944 069 939

**Maldeojo optika-atelierra**
+34 946 029 676

**Mil Rosas Bilbao**
*Loradenda*
+34 944 152 791

**Muebles Padiber**
+34 944 160 370

**Olañeta**
*Moda eta osagarriak*
+34 944 153 196

**Jesús optika**
+34 944 792 110

**Original Tea Casco Viejo**
+34 944 412 804

**Original Tea Indautxu**
+34 944 163 363

**La Favela ile-apaindegia**
+34 686 461 717

**Semillas Antuñano**
*Maskotentzako elikagaiak, haziak, baratzeko eta apaintzeko landareak, landare sanitarioak eta lorezaintzako osagarriak.*
+34 944 156 094

**SKFK**
*Moda eta osagarriak*
+34 613 462 394

### Erandio

**Natalia Zubizarreta Interiorismo**
+34 627 534 847

**Txorierri Kirolak Surf**
*Moda eta osagarriak*
+34 944 671 966

### Getxo

**Nui Style**
*Moda eta osagarriak*
+34 646 282 061

**Sofás Cama Galea**
+34 944 302 870

**Vito, 52 zapata-denda**
+34 944 910 359

### Leioa

**Leroy Merlin Artea**
+34 944 819 200

### Portugalete

**Deportes Sportlandia**
+34 944 617 971

### Santurtzi

**Soho**
*Kirol- eta abentura-denda*
+34 944 839 082

## ZER EGIN?

### Bilbo

**Bilbao Xperience**
*Gidatutako ibilaldiak eta txangoak*
+34 688 608 184

**La Sinsorga**
*Bilboko gune kultural feminista bat da, kultura eta pentsamendu feminista sustatzea helburu duena. Joan nahi genuen tokia.*
+34 944 028 475

**Nis - North Incoming Service**
*Gidatutako ibilaldiak eta txangoak*
+34 944 255 830

**Bilboko Turismo Bulegoa**
+34 944 795 760

**Tourné Bilbao**
*Tamaina guztietako txakurrentzako saskidun bizikleten eta karga-bizikleten alokairua eta ibilaldiak.*
+34 688 749 372

### Getxo

**El Bote Tours Getxo**
*Gidatutako txalupa-paseoak Bilboko itsasadarrean*
+34 605 014 365

**Marmitako Sailing**
*Bizkaiko kostaldea eta Bilboko itsasadarra ezagutzera gonbidatu nahi zaitugu ontzi-esperientzia bikainen bidez; egun erdiko irteeretatik hasi eta astebetera artekoak.*
+34 688 722 676

**Getxoko Turismo Bulegoa**
+34 944 910 800

### Santurtzi

**Santurtziko Turismo Bulegoa**
+34 944 839 494

### Sondika

**Ekobideak**
*Bizkaiko geoturismoaren inguruko irteerak.*
+34 666 857 761

# Bilbo: Informazio praktikoa

## TXAKUR-NEGOZIOAK

### Barakaldo

**Txakur Eskola**
*Hezitzaileak/ trebatzaileak*
+34 944 388 626

### Basauri

**Konpa Mascotas Low Cost By Euskalmushing - Basauri**
*Maskotentzako osagarri-denda*
+34 946 469 047

### Bilbo

**Almike Grooming**
*Ile-apainketa eta estetika* +34 944 105 697

**Canis Natura**
*Hezitzaileak/ trebatzaileak*
+34 615 705 653

**Facedog**
*Ile-apainketa eta estetika*
+34 636 620 796

**Indomable**
*Maskotentzako osagarri-denda*
+34 689 556 082

**Konpa Mascotas Low Cost By Euskalmushing - Errekalde**
*Maskotentzako osagarri-denda*
+34 946 089 248

**Konpa Mascotas Low Cost By Euskalmushing - Santutxu**
*Maskotentzako osagarri-denda*
+34 944 014 362

**Mestizaa Fotografía para una vida muy perra**
+34 645 734 952

**Mimopets**
*Txakurrentzako ile-apainketa eta spa (ozonoterapia)*
+34 672 918 726

**P. Zabalburu, ikuztegia eta nork bere txakurra garbitzeko gunea**
+34 695 787 510

**Patrizia Zubieta**
*Txakurren argazkiak*
+34 686 142 529

**Reguaupos**
*Txakurrentzako ile-apaindegia*
+34 657 134 024

**Pet Nature**
*Maskotentzako osagarri-denda*
+34 944 395 130

**El Almacén telepentsua**
*Maskotentzako osagarri-denda*
+34 944 457 737

### Erandio

**Namaspet**
*Txakurrentzako ile-apaindegia*
+34 946 557 460

### Getxo

**Animalex Abogacía**
+34 613 019 579

**Katukan**
*Ile-apainketa eta estetika*
+34 944 800 453

**Txintxo Denda**
*Ile-apainketa eta estetika*
+34 944 912 322

### Leioa

**Katukan**
*Ile-apainketa eta estetika*
+34 944 801 831

## ALBAITARITZA-KLINIKAK

### Barakaldo

**Adei albaitaritza-zentroa**
+34 946 121 453

### Bilbo

**Bidarte albaitaritza-klinika**
+34 944 750 224

**Ensanche albaitaritza-klinika**
+34 944 246 826

**Garay albaitaritza-klinika**
+34 944 164 070

**Nuevo Ensanche albaitaritza-klinika**
+34 944 432 702

### Getxo

**Algorta albaitaritza-zentroa**
+34 944 362 970

### Sestao

**Sestao albaitaritza-klinika**
+34 944 722 239

## ALBAITARITZA-KLINIKAK
**24 orduko larrialdi-zerbitzua dutenak**

### Arrigorriaga

**Arkakuxo albaitaritza-klinika**
+34 946 712 726
**24 orduko larrialdi-zerbitzua: +34 675 673 610**

### Bilbo

**Avenida albaitaritza-ospitalea**
**24 orduko larrialdi-zerbitzua: +34 944 424 040**

### Santurtzi

**Tucan albaitaritza-ospitalea**
+34 944 615 077
**24 orduko larrialdi-zerbitzua: +34 688 699 987**

## GARRAIOA

### Bilbo

**Taxi 021 Bilbo** Aitziber
+34 665 703 751





# Dog-friendly garraiobideak







**Bilboko tranbia**
www.euskotren.eus
Bilboko tranbian txakurrek bidaiatzeko aukera dute, tamaina edozein delarik ere, betiere uhalez lotuta badaude. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrek debekatuta dute sartzea.

**Bilbobus**
www.bilbao.eus
Onartu egiten dituzte, baina betiere bidaia-kutxan sartuta.

**Euskotren**
www.euskotren.eus
Euskotrenen edozein tamainako txakurrak onartzen dituzte, betiere uhalez lotuta badaude. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrek debekatuta dute sartzea.

**Renfe (aldiriak)**
www.renfe.com
Tamaina guztietako txakurrak onartzen dira. Garraio-kutxan bidaiatu beharko dute, edo uhalez lotuak eta muturrekoa jarrita. Txakur bat bakarrik bidaiari bakoitzeko.

**Bilboko metroa**
www.metrobilbao.eus
**1 eta 2 lineetan:** 8 kg-rainoko txakurrak joan ahal dira, uhalez lotuta edo besoetan, edo garraio-kutxa itxi baten barruan badoaz.
**3. linean:** edozein tamainako txakurrak joan daitezke, betiere uhalez lotuta badaude. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrek debekatuta dute sartzea.

**Taxiak**
Deitu telefonogunera eta esan txakurrarekin joango zarela. Beraiek aurkituko dizute txakur eta guzti joateko ibilgailua.

**Radio Taxi Bilbao:** 944 488 888
www.taxibilbao.com

**Teletaxi Bilbao:** 944 192 121
www.teletaxibilbao.com

**Radiotaxi Nervión:** 944 269 026
www.radiotaxinervion.com

**Artxandako funikularra:** +34 94 445 49 66
Txakurrek azken konpartimentuan bidaiatu dezakete, jabeekin batera beti, eta instalazio guztietan eta ibilbide osoan lotuta. Arriskutsua izan daitekeen txakurtzat hartzen diren txakurrak ezin dira funikularrera igo.

**Bizkaibus**
www.bizkaia.eus
Txakurrek bidaiatzeko aukera izango dute, baldin eta 8kg baino gutxiago pisatzen badute eta garraio-kutxa itxi baten barruan badoaz.

**Bizkaiko zubia**
www.puente-colgante.com
40 kg-rainoko txakurrak doan sartu ahal dira bidaiarientzako alboko gunean, baina betiere uhalez lotuta edo bidaia-kutxan sartuta.
Tamaina guztietako txakurrak joan daitezke erdiko eremuan, estali gabean.
Txakurren segurtasunagatik, debekatuta dago txakurrekin igotzea goiko pasabidera.

# Txakurrentzako aisia-guneak

**Bilboko Udalak txakurrentzako aisia-guneak egokitu ditu parkeetan, ondo seinaleztatuta eta ordutegi zehatzekin. Tarte horietan solte (uhalik gabe) ibili ahal izango dira, honako irizpide hauek kontuan hartuta:**

**Ordutegia:**

**Neguan (azarotik maiatzera): 19:00etatik 11:00etara.**

**Udan (ekainetik urrira) 20:00etatik 11:00etara.**

- *Jabeek edo animalien zaintzaileek animaliak edukitzeko ordenantza bete beharko dute, goitik behera, eta batez ere gorozkiak biltzeari eta animaliak etengabe kontrolpean edukitzeari buruzkoak.*
- *Arriskutsutzat sailkatutako txakurrek EZ dute eremu horiek erabiltzeko aukerarik izango.*
- *Parkeko aisia-gune guztiak egoki seinaleztatuta daude, informazio-txartelen bidez.*

**Hona txakurrentzako aisia-guneak dituzten Bilboko parkeak:**


Amezolako parkea


Zorrotzako Azoka parkea


Casilda Iturrizar parkea


Enkarnazio parkea


Eskurtze parkea


Etxebarria parkea


Europa parkea


Ibaieder parkea


Miribilla parkea


Sarriko parkea

Getxoko hondartzei buruzko informazioa, Euskal Kostaldeko info praktikoan (32-33. or.).



# Donostia

**Lapurdiko mugatik 30 km-ra, behintzat bizitzan behin bisitatu beharreko hiritzat daukate askok Donostia. Hiri kosmopolita da, itsasora irekia eta bizitzaz betea, zure txakurrarekin zeharkatzeko mendiz eta hondartzaz inguratua, eta mundu osoko gastronomiarik ospetsuenetako baten erdigunea.**



## Itsas ibilbidea… hiriaren erdigunean

**Donostia txakurrarekin ezagutzen hasteko, 4 km-tik gorako itsas ibilbidea zeharkatuko dugu, Euskadiko eskulturarik ezagunenetako eta ikusgarrienetako batean bukatzeko: Eduardo Txillidaren Haizearen Orrazian.**



Txakur eta guzti egiteko ibilbidearen abiapuntua **Zurriolako hondartza** izango da, mundu osoko surflarientzako 800 metroko paradisua. Hiriko hondartzarik «gazteena» da. Berehala aurkituko dugu **Kursaal Kongresu Jauregi eta Auditoriuma**, haren kubo ikonikoak hondartza horretan bertan sartzen baitira. Rafael Moneok diseinatu zuen eta Zinemaldiaren egoitza nagusia da 1999an inauguratu zutenez geroztik.



***TXAKURZALEENTZAKO PISTA: gauez ikusi beharrekoa da, eraikinaren argiteria benetan ikusgarria baita.***

Kursaalen ondo-ondoan aurkituko duzue **Zurriola zubi** ederra, hiria ardazten duen Urumea ibaiaren bokalea ikusteko toki egokia.

Beste aldean dagoen **Victoria Eugenia antzokiak** egingo digu ongietorria donostiar guztiek atsegin duten ibiltokira: Donostiako erdigunea eta **Parte Zaharra** bereizten dituen **Boulevardera**. Inolako presarik gabe zeharkatzea komeni da, izozki on batez gozatzen eta bertako eserleku batean trankil, hiriaren

erritmoari begira.

Zumardiaren buruan dago udaletxea, **Alderdi Eder lorategietan.** 1943ra arte **Donostiako Kasinoaren** egoitza izan zen.

Eta bertatik hasita, aurrez aurre ikusiko dugu **Kontxako badia**, hirian argazki gehien merezi duen ikuspegia. Europako hiri-hondartzarik onenetakoen artean dago, hiriak bere-berekotzat duen baranda zuriz jantzita. Neguan ez da arraroa donostiarrik ausartenak bainua hartzen ikustea, txakurrekin ibilaldia egiten duten dozenaka lagunekin partekatzen hondartza.



Eta ibiltoki horretatik bertatik ikusiko duzue **Santa Klara uharte** ederra.

Hondartzak dituen 1,5 kilometroak egin ondoren eta **Miramar jauregiko** (ingeles estilokoa eta 1893an eraikia) **lorategiak** zeharkatuta, **Ondarretako hondartzara** iritsiko gara, Donostiak dituen hiru hiri-hondartzetatik txikienera.

**Igeldo mendiaren** magalean, hondartza dotore horrek erakutsiko digu **Haizearen Orrazirako** bidea. 10 tonako altzairuzko hiru eskulturako multzoa da, haitzetan errotuta, Eduardo Txillida eskultore ospetsuaren lana.

Txakurra ikaratia ez bada, olatu handiak dabiltzanean ikustea merezi du: itzela da olatuek eskulturak kolpatzen ikustea… Baina kontuz, blai eginda bukatzeko arriskua duzue eta!

**Proba gaindituta! Zure txakurrak ur-zurrupa behar du eta zuri ere komeni zaizu indarrak berreskuratzea inguruko dog-friendly kafetegiren edo jatetxeren batean.**

*DONOSTIAN HONDARTZETAN TXAKURRAREKIN IBILTZEKO POLITIKA:*

*hiru hondartzetan ibil zaitezke txakurrarekin (arriskutsuak ez badira), beti uhalez lotuta eta bainu-sasoitik kanpora (urriaren 1etik maiatzaren 31ra). Bainu-sasoian, ordu guztietan dago debekatuta. Halakoetan, itsas ibiltokian ibiltzea gomendatzen dizugu.*

*Urte osoan debekatuta dago txakurrarekin Santa Klara uhartera joatea.*




***Denbora: 1 ordu** (joaneko bidea soilik)*

***Plan ederra da** arratsaldean lasai ibiltzeko, esku batean izozkia eta beste eskuan zure txakurraren uhala duzula.*

# Auzoetan ibilian

**Hondartzak eta itsas ibiltokiak dira, seguruenik, Donostiako erakargarri ezagunena. Halere, nahitaezkoa da auzoetan ibiltzea, itsasora, gastronomiara eta kulturara irekitako hiriaren izaera ezagutu nahi baduzu. Gustu guztietarako planak daude.**



## Parte Zaharra: gastronomiaren tenplua

Hiriko gunerik bisitatuenetako bat da; bertako ehunka dendak, jatetxeak, tabernak… tarteko, hiriko auzorik bizienetakoa da.

Txakurren lagunentzako aholkua: *txakurrarekin Parte Zaharrean pintxotan ibiltzea zaila izan daiteke. Asteburuetan eta jaiegunetan jende asko ibiltzen da, ehunka zotz behegainean, janari eta guzti… Zure txakurrarekin ere egin dezakezu pintxoen ibilbidea, baina aukeratu jende gutxiago dabilen uneren bat, jende gutxiago dabilen eremuren bat... Inork baino hobeto ezagutzen duzu zeure txakurra; ez ahaztu inoiz haren ongizatea.*

## Arrantza-portua

Parte Zaharraren sena galdu gabe, Nautikoaren alboan terrazaren batean esertzea gomendatzen dizugu. Iluntzeaz gozatzeko leku bikaina da, txakurra laztantzen eta egun osoko portaeragatik saritzen duzun bitartean.

## Gros: auzo ederra!

Hiriko gunerik gazteenetako bat da; kaleetan nahiz kafetegietan giro informala, lasaia antzematen da, txakurrarekin pintxo-potea egiteko giro ezin hobea.

## Erdialdea: erosketak… eta ahateak.

Oinezkoentzako kale zabalak aurkituko dituzue, nortasun handiko saltokiz josita, saltoki multinazionalen alboan. Dog-friendly dendetan sartu-irtena egin ondoren, Gipuzkoa Plazan har dezakezue atsedenaldia. Ahateak eta zisneak lasai dabiltzan urmaela dago bertan eta ziur gaude zure lau hankadun lagunak arretaz begiratuko diela.

## Antigua

Jatorrian industria- eta langile-auzoa bazen ere, azken urteotan goitik behera eraldatu da, baina bere sena galdu gabe. Ezin hobea benetako Donostiaz gozatzeko, eta erritmo lasaiagoan.



# Hiru mendi berdek zaintzen dute hiria

**Garai batean gotorleku militarrak, lorategi aristokratikoak edo baleak ikusteko arrantzaleentzako talaiak izan ziren baina gaur egun donostiarrek nahiz bisitariek erabiltzeko aisia-gune bihurtu dira. Txakurrak ibilaldi berdeez gozatuko du, eta zuk, berriz, luzaro ahantziko ez dituzun ikuspegi bikainez.**



## Urgull mendia

Txakurrarekin egiteko ibilbidea dugu gaur: Donostiako Parte Zaharretik Urgull mendira igotzea. Bide ugari dituzu aukeran, guztiak ere asfaltozkoak, begetazio ugariarekin eta ezkutuko behatokiz josita. Hiriaren 800 urtetik gorako historia ezagutzeko ibilbidea, eta muturrean Mota gaztelua eta Jesusen Bihotzaren eskultura.

*Urgull parkean txakurrak solte erabili ahal dira neguan, 18:00etatik 12:00etara eta udan 19:00etatik 10:00etara (txakur arriskutsuak izan ezik).*

## Igeldo mendia

Haizearen Orrazitik hurbil aurkituko duzu 1912an eraiki zuten **funikularraren** geltokia. Atera zuretzako eta zure txakurrarentzako txartela eta erromantizismoz betetako esperientzia bizi izango duzu bertako atrakzio-parkean. Eta amaitzeko, Kontxako badiako aireko ikuspegi bikainez gozatuko duzu, presarik gabe.





## Ulia mendia

Mendiaren mendebaldeko muturrean Donostiako Zurriola hondartza eta Gros auzoa daude. Ekialdeko muturrean, berriz, Pasaiako portua. Baleak behatzeko talaiatzat eta aristokratak paseatzeko eremutzat erabiltzen zen aspaldian, baina gaur egun zure txakurrak uhalik gabe ibiltzeko aukera izango du, hiriak mendian ibiltzeko duen gunerik garrantzitsuenean. Txakurrak indarrak husteko leku ezin ederragoa da, 300.00 m$^2$-tik gorako berdegune zabalari esker.

**Kostaldeko Donejakue Bideak** Ulia mendia zeharkatzen du ekialdetik mendebaldera eta, beraz, txakurra erromes bihurtuko da une batez.

*Ulia mendian txakurrak solte ibil daitezke 18:00etatik 12:00etara, urte osoan (txakur arriskutsuak izan ezik).*

# Donostia: Informazio praktikoa

Dog-friendly negozio onenak aurkituko dituzu hemen, txakurrentzako aisialdi-eremuak eta garraioak. Zu eta zure txakurra ongi etorriak izango zarete bertan. Gogoratu beti txakurren sarbideari buruzko politika osoa eta eguneratua kontsultatu behar duzula, baita argazkiak, iritziak, kokapen zehatza eta harremanetarako beste moduak ere, negozioen webgunean edo txakurrekiko turismo eta aisiari buruzko orri espezializatuetan.



### OSTATUAK

01. **AVENIDA hotela*****
+34 943 212 022

02. **Casual de las olas San Sebastian hotela****
+34 943 055 000

03. **Gudamendi hotela******
+34 943 214 000

04. **San Sebastián Orly Affiliated by Meliá hotela******
+34 943 463 200

05. **La Galería hotela****
+34 943 317 559

06. **Mar y mar nekazaritza-turismoa**
+34 943 317 377

07. **Monte Ulia hotela***
+34 943 326 767

08. **Uba Hostel aterpetxe turistikoa**
+34 943 047 277

### TABERNAK ETA JATETXEAK

09. **Bar Amazonas**
+34 943 428 760

10. **Bar Garai taberna**
+34 943 214 991

11. **Bar Geralds**
+34 943 083 001

12. **La Burguessia jatetxea**
+34 943 326 734

13. **La Cepa jatetxea**
+34 943 426 394

14. **Mas que café MQC kafetegia**
+34 943 848 257

15. **Oquendo jatetxea**
+34 943 420 736

16. **Pizzeria Paparazzi jatetxea**
+34 943 031 100

### SALTOKIAK

17. **Batlló Concept**
*Dekorazioa eta etxea*
+34 943 059 943

18. **Elmypie**
*Galtzerdi originalak eta dibertigarriak*
+34 943 277 430

19. **Mosaico**
*Dekorazioa eta etxea*
+34 943 293 309

20. **Real Sociedad Anoeta**
*Denda ofiziala*
+34 943 455 629

21. **Real Sociedad**
*Denda ofiziala*
+34 943 428 359

22. **Rosan**
*Liburu-denda eta paper-denda*
+34 943 466 723

### ZER EGIN?

23. **Go Local San Sebastian Tours**
*Mota guztietako ibilaldi gidatuak Donostian barrena*
+34 943 048 328

24. **Donostia Turismoa**
+34 943 481 166

### TXAKUR-NEGOZIOAK

25. **Etolcanin**
*Hezitzaileak/trebatzaileak, etologoa, maskotentzako osagarri-denda*
+34 687 030 583

26. **Leorpe Txakur-Katu Egoitza**
*Txakurrentzako hotela*
+34 669 468 553

27. **SitCan Urdaneta**
*Txakurrentzako hezitzaileak, trebatzaileak eta hotela*
+34 626 537 214

### ALBAITARITZA-KLINIKAK

28. **Katamotz albaitaritza-zentroa**
+34 943 107 849

# Dog-friendly garraiobideak

**Hiri-autobusa**
www.dbus.es
Besoetan edo bidaia-kutxan doazen txakur txikiak onartzen dituzte.

**Renfe (aldiriak)**
www.renfe.com
Tamaina guztietako txakurrak onartzen dira. Garraio-kutxan bidaiatu beharko dute, edo uhalez lotuak eta muturrekoa jarrita. Txakur bat bakarrik bidaiari bakoitzeko.

**Euskotren**
www.euskotren.eus
Euskotrenen edozein tamainako txakurrak joan ahal dira, baina betiere uhalez lotuta badaude. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrek debekatuta dute sartzea.

**Taxi Donosti:** 943 464 646
www.taxidonosti.com
Deitu eta txakurrarekin joango zarela esan txakurrarekin joango zarela. Beraiek aurkituko dizute txakur eta guzti joateko ibilgailua.

**Igeldo mendiko funikularra**
www.monteigueldo.es
Txakurrak funikularrean joan ahal dira, uhalez lotuta eta 2,50€-ko gehigarria ordainduta.

# Txakurrentzako aisia-guneak






**Hiri inguruneko parke hauetan txakurrak uhalik gabe ibil daitezke 18:00etatik 12:00etara:**

- Miramon
- Lau Haizeta
- Otxoki
- Ametzagaina
- Ulia
- Urgull: neguan 18:00etatik 12:00etara; udan 19:00etatik 10:00etara.

**Badira beste aisia-gune batzuk auzo guztietan. https://www.donostia.eus webgunean ikus ditzakezu eremu horiek, zehatz-mehatz.**

- Zure txakurra arriskutsutzat sailkatutako arrazaren batekoa bada, ezin izango duzu inoiz erabili solte eta muturrekorik gabe.
- Dena dela, aisia-gune horietan ere txakurra kontrolpean eduki beharko duzu, eta haren gorozkiak batu.

**Hiriko gainerako toki guztietan txakurrak lotuta ibili behar du.**

Donostiako hondartzei buruzko informazioa, Euskal Kostaldeko info praktikoan (32-33. or.).



# Vitoria-Gasteiz

Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburua XII. mendean sortu zuten eta gaur egun hiri erosoa eta atsegina da, hirigunean nahiz hiri-aldirietan berdegune itzelak dituena, bai eta inoiz ikusiko duzun hirigune historiko ikusgarrienetako bat ere.

## Eraztun Berdea eta Salburuko hezegunea

**Zure txakurrak non bizi aukeratu ahal izango balu, ziurrenik Gasteiz berdea lehenengo postuetan egongo litzateke.**

**Hiria inguratzen duen «Eraztun Berdea» nazioartean aitortutako hirigintza-apustu handia da, parkeak, basoak, hezeguneak eta abar egoki uztartzen jakin baitu. Balio handikoa da ekologiaren nahiz paisaiaren ikuspegitik, eta biztanle guztiek gozatzeko orotariko eremuak eskaintzen ditu. Ibilbidean zehar ibaiak, errekak, hezeguneak, landen arteko baso-uharteak eta Arabako Lautadako herrixka tipikoak ikusiko dituzu, den-dena hiri ondoan.**

Basoko espeziekin izan daitezkeen arazoak direla eta, Eraztun Berde osoan (Salburuan, Zabalganan, Olarizun, Armentian eta Zadorran) txakurrek lotuta joan behar dute, atxikitako planoan agertzen diren eremu berezietan izan ezik (egoki seinaleztatuta daude).

Ehunka ibilbide eta ibiltoki aurkituko dituzue txakurra eta biok elkarrekin erlaxatzeko. Hemen adibide pare bat aipatuko ditugu baina askoz ere gehiago aurkituko dituzu www.turismo.euskadi.eus webgunean.




**Ibilaldia Armentiako basoan.** Inguru horretan arbolak dira jaun eta jabe: zure txakurrak astigarren, elorri zurien, elorri beltzen eta masusten usaina antzemango du, beste usain askoren artean. Izan ere, basoak **fauna ugaria** ere babesten du: orkatzak, basurdeak, katagorriak, hegazti harrapariak eta txori txikiak, hala nola kardantxiloak, txantxangorriak…

*4,5 km-ko ibilbide honetan ikusiko dituzue, halaber, Eskibelgo dorrea eta San Prudentzio basilika.*

**Salburua, Arkautiko urmaelean zehar.** Salburuko parkean dago **Europako hezegunerik handienetako bat**, hirigunetik 3 km eskasera. Ibilbide horretan bertatik bertara ikusi ahal izango dituzue orein-taldeak eta beste espezie batzuk, hala nola bisoi europarra, mirotza, mokozabala… baso hostotsuak, malba-larre hezeak eta ihitzak zeharkatzen dituzuen bitartean.

*4 km-ko ibilbide biribila da eta gutxi gorabehera ordubetean egin daiteke asfaltozko bidetik.*

***Plan ederra da** egun osoa Gasteiz ezagutzen eman ondoren, arratsaldean erlaxatzeko. Zuretzako eta zure txakurrarentzako saririk onena izango da.*

*Baina bizikleta nahiago baduzue, Eraztun Berdearen ibilbidea jarraituz Gasteiz inguratzeko aukera duzue: % 100 bizikletan zeharkatzeko prestatutako 30,8 km-ko bide berdea. Bi ordu baino gutxiagoan egin daiteke, erritmo lasaian.*

# Erdi Aroko Almendra eta Zabalgunea

**Hiriaren alderdirik altuenetan dago Erdi Aroko eremua, ia osorik oinezkoentzako gunea. Zuk eta txakurrak elkarrekin egiteko ibilaldi erosoa proposatzen dizugu, Zabalguneko kaleetan hasi eta alde zaharrean amaitzeko. Eta, tartean, parkeak eta lorategiak, ezinbestekoak Europa osoko hiririk berdeenetako batean.**






**Floridako parkea** hartuko dugu abiapuntutzat: bertako bideak zeharkatu eta **Maria Inmaculada katedrala** inguratuko dugu ondoren. Txakurraren berdetasun-premia ase ondoren, **Zabalgunean** sartuko gara, oinezkoentzako etorbide zabalez eta erakusleiho biziez gozatzeko.

Bi kale nagusien bidegurutzean aurkituko duzue **Gasteizko Ibiltariaren** brontzezko eskultura ospetsua. 3 metro eta erdiko altuera du eta **Juan Jose Eguizabal** artistak egin zuen. Zure argazki-bilduman lekutxoa egin beharko diozu zure txakurra gizonezko luze horren alboan ageri den argazkiari.



Kale bizietan zehar ibilian iritsiko gara **Espainiako Plazara** eta **Andre Maria Zuriaren Plazara.**

Erdi **Aroko Almendraren** atarian gaude. Hartu zure denbora landare-eskulturaren ondoan argazki bat egiteko, hiriaren benetako ikurra da-eta.

Erdi Aroko Almendran barrena, beste garai batean murgilduko zarete. Ibili-ibilian **Aihotz Plazan** eta **Arkupeko Ibilbidean**; edozein kale hartuz gero ere, **Santa Maria katedraleraino** iritsiko zarete. Kantoiak elkarrekin lotzen dituzten arrapala mekanikoak ere har ditzakezue, **Harategi kantoitik Erdi Aroko** harresi ikusgarriak miresteko. Eta beti duzue indarrak berreskuratzeko aukera, **Aiztogile kaleko** tabernetan pintxoa janez, horixe baita hiriko poteo-gunerik ezagunenetako bat.



***Denbora: bi ordutik gorako*** *ibilaldi lasaia, argazkiak egiteko eta hiriaren erritmoaz gozatzeko geldialdiak barne hartuta.*

***Plan ezin hobea da*** *Plan ezin hobea da goiza indarrarekin hasteko; amaitzeko, berriz, zerbait jan dezakezue, patxada handiz, Erdi Aroko Almendrako kale magikoetako batean.*

*Gasteiztxon ere egin dezakezu ibilbidea, txakur eta guzti. Uztailetik urrira bitarte dago indarrean. Ikusi baldintzak turismo-bulegoan (+34 945 161 598).*

# Uribarri-Ganboako urtegia. Txakurrak uretara!

**Hiritik 20 minutu eskasera aurkituko duzue Gasteiz eta Bilbo urez hornitzen dituen eta Zadorra ibaiko isuria erregulatzen duen naturaren paradisu hori. Txakurrari uretan ibiltzea gustatzen bazaio, nahitaez egin behar diozu bisita urtegiari.**





## Bandera urdindun hondartzak

2025eko udan, Arabak Euskal Autonomia Erkidegoko bost bandera urdinetako hiru ditu.

- Garaio Iparraldea
- Garaio Hegoaldea
- Landa

Etxe-abereek edo animalia etxekotuek guztiz debekatuta dute uretan edo “bainu-eremuan” sartzea, bainu-eremu hori ur-laminak eta aldameneko legar-esparruak osatzen dutelarik. Parkeko gainerako guneetan, animaliak betiere uhalaz lotuta ibiliko dira.




*Parke probintzialaz kanpo dagoen urtegiaren zatian, baina, urteko edozein garaitan har dezakezue bainua txakurrarekin.*

## Ibilbide berdea

Zure txakurrak are gehiago maite izango zaitu, baldin eta 45 km-ko ibilbide honetan hankei eragitera eramaten baduzu. Oinez nahiz bizikletan egiteko **2 ibilbide** daude: bata 13 km-koa eta bestea 32 km-koa. Ibilbidea **ur ertzetik dabil, tartean zurezko pasabideak**, aisialdirako eta bainua hartzeko eremuak… Familia osoarentzako plan bikaina!

*Gogoan izan ibilbide horretan debekatuta dagoela txakurrak solte erabiltzea, alde batetik basa-fauna kalte dezaketelako eta beste alde batetik gainerako erabiltzaileei traba eragin diezaieketelako.*



# Vitoria-Gasteiz: Informazio praktikoa

Dog-friendly negozio onenak aurkituko dituzu hemen, txakurrentzako aisialdi-eremuak eta garraioak. Zu eta zure txakurra ongi etorriak izango zarete bertan. Gogoratu beti txakurren sarbideari buruzko politika osoa eta eguneratua kontsultatu behar duzula, baita argazkiak, iritziak, kokapen zehatza eta harremanetarako beste moduak ere, negozioen webgunean edo txakurrekiko turismo eta aisiari buruzko orri espezializatuetan.

## OSTATUAK

**Irenaz Vitoria apartamentuak**
+34 945 104 104

**Gran Hotel Lakua*******
+34 945 181 000

**Jardines de Aristi apartamentu-hotela****
+34 945 205 478

**Kora Green City apartamentu-hotela**
+34 945 215 333

**Canciller Ayala Vitoria NH hotela******
+34 945 130 000

**Boulevard Vitoria Sercotel hotela******
+34 945 180 400

## TABERNAK ETA JATETXEAK

**Bar Bendaña**
+34 622 143 692

**Basque Vitoria jatetxea**
+34 945 773 755

**Bar Big Ben**
+34 945 228 630

**Bar Black51**
+34 945 212 560

**Bar Brown46**
+34 945 625 807

**Cafetaza kafetegia**
+34 945 336 828

**Bar Dazz**
+34 634 411 410

**GU-RIA gildategi-taberna**
+34 944 415 780

**Recoleta Sweet Cake kafetegia**
+34 945 130 255

## SALTOKIAK

**2 Huellas**
*Moda eta osagarriak*
+34 945 141 843

**Angosto Sagarna argazkilaria**
+34 676 084 704

**Argi**
*Argiztapen-denda*
+34 945 253 194

**Arlekin 1**
*Liburu-denda eta paper-denda*
+34 945 144 913

**Arlekin 2**
*Liburu-denda eta paper-denda*
+34 945 779 589

**Artesanía de Turquía**
+34 657 716 038

**Bacomat**
*Etxetresna elektrikoak*
+34 945 223 476

**Bibegi optika eta audiologia**
+34 945 778 034

**CASO 45 Suspense eta umoreko liburu-denda ;)**
+34 945 707 639

**Sarasua zentro naturista**
+34 945 270 809

**CleanUp BIO**
*Garbiketa-produktu ekologikoak*
+34 633 333 336

**Cotton Artean**
*Dekorazioa eta etxea*
+34 945 135 775

**Decoración Vesta**
*Dekorazioa eta etxea*
+34 634 440 413

**Enarak Moda**
*Moda eta osagarriak*
+34 640 711 599

**Marian Benavides estetika**
+34 945 288 200

**Filatelia Gasteiz**
+34 945 231 585

**Angelines loradenda**
+34 945 243 823

**Munai loradenda**
+34 945 263 420

**IRIS fotokopiak**
+34 945 120 976

**Gasteiz Luz argiztapena**
+34 945 224 524

**Había Una Vez fotografía**
+34 636 154 512

**Imaro Terapias Energéticas y Artesanía**
+34 651 708 170

**José Luis optikoa**
+34 945 264 472

**KAI**
*Estilistak*
+34 945 282 094

**La luna mertzeria**
+34 669 714 385

**Leroy Merlin Gasteiz**
+34 945 129 900

**Mara-Mara Liburuak**
*Liburu-denda*
+34 945 253 317

**Marjus**
*Loradenda*
+34 945 280 045

**Muscari Floristas**
+34 945 171 560

**Naiara Elejalde**
*Estetika-zentroa*
+34 945 104 248

**Naroa Informática**
+34 624 255 340

**Nati**
*Moda eta osagarriak*
+34 685 751 527

**Luz optika**
*Optika independentea, mimoz hautatutako betaurrekoekin. Optometria + Progresiboak + Kontaktologia.*
+34 945 230 949

**Eguiluz parafarmazia**
+34 674 092 148

**Circus ile-apaindegia**
+34 945 177 988

**Recoleta Sweet Cake**
*Moda eta osagarriak*
+34 945 130 255

**Sombreros Albero**
*Moda eta osagarriak*
+34 649 065 203

**St. Tropez Viajes**
+34 945 198 901

**Twinsisters**
*Moda eta osagarriak*
+34 945 145 610

**Urbieta**
*Moda eta osagarriak*
+34 945 140 588

**Wilco**
*Moda eta osagarriak*
+34 945 131 367

**Xtreme**
*Moda eta osagarriak*
+34 945 134 573

## TXAKUR-NEGOZIOAK

**Garbidogi**
*Nork bere txakurra garbitzea eta elikagaiak*
+34 630 373 369

**New Aviario Brazil-Txakurrentzako ile-apaindegia**
+34 615 480 849

## ALBAITARITZA-KLINIKAK

**24 orduko larrialdi-zerbitzua dutenak**

**Ariznabarra albaitaritza-klinika**
+34 945 064 644
**24 orduko larrialdi-zerbitzua: +34 688 629 509**

# Dog-friendly garraiobideak

**Hiri-autobusa**
www.vitoria-gasteiz.org
Animalien garraioa baimenduta dago, betiere txikiak badira eta garraio-kutxa itxi baten barruan badoaz.

**Radio Taxi Gasteiz**: 945 273 500
www.rtaxigasteiz.com
Deitu telefonogunera eta esan txakurrarekin joango zarela. Beraiek aurkituko dizute txakur eta guzti joateko ibilgailua.

**Gasteizko tranbia**
www.euskotren.eus
Baimenduta dago tranbian txakurrarekin bidaiatzea, baldin eta uhalez lotuta badago eta ez bada arriskutsua, edo gogaikarria ez bada formagatik, bolumenagatik, zaratagatik edo usainagatik.



# Txakurrentzako aisia-guneak

**Txakurrak beti lotuta eraman behar dira eta berdeguneetan soilik askatu (arriskutsutzat sailkatutakoak izan ezik, beti lotuta joan beharko baitute), salbuespen batzuekin:**

- Katedralaren parkean
- Unibertsitateko campuseko lorategietan (Maria de Maeztu lorategietan bai, ordea)
- Prado parkean
- Florida parkean (Uraren Lorategi Sekretuan barne)
- Natura 2000 Sarean sartutako eremuetan: Salburuan, Zadorran, Arabako lautadako uharte-hariztietan eta Gasteizko goi mendietan.



# Euskal Kostaldea

**Txakurzaleentzako planik hoberenak belarraren berdea, itsasoaren urdina eta harearen horia biltzen ditu. Deskubritu Euskal Kostaldea zure txakurrarekin: sekulako labarren gainean dauden ibiltokiak, hondar basak eta hatsik gabe utziko zaituzteten arrantzale-portuak.**

## Euskal Kostaldeko Geoparkea

**Kantauri itsasoaren eta euskal mendian kokatutako lur-tarte estu batean, MUTRIKU, DEBA eta ZUMAIA herriek osatutako eremuan, Euskal Kostaldeko Geoparkearen 13 km-ko labarrak aurkituko dituzue. Eta, tartean, Flysch izeneko haitz-geruzen formazio ikusgarria.**

***Denbora: 2 ordu.*** *(4,7 km) soilik joaneko bidean.*

***Plan ederra da*** *bi eta lau hankadun abenturazaleentzat, sasoi onean egonik hankei eragiteko gogoz dabiltzanentzat.*

### Txakurzaleentzako ibilbidea: Sakonetako geoibilbidea.

Labarren ertz-ertzetik dabil bidexka, kala ezkutuetara, haitz zurizko harresietara, jauzika datozen erreketara eta Kantauriko marea-laugunerik handienetako batera begira. Ibilaldiaren edertasun osoa barneratzeko, baina, ezinbestekoa da marea behera dagoenerako aurreikustea bisita. Itxaspen hasi eta Errotaberriraino iristea gomendatzen dugu.

***Gogoan izan Geoparkeko arauen arabera, txakurrak beti lotuta joan behar duela. Eraman biderako ura, gerta baitaiteke iturririk ez aurkitzea eskura.***






# Urdaibaiko biosfera-erreserba

**UNESCOk 1984an izendatu zuen ingurumen- eta kultura-interes handiko espazio naturaltzat. Oka ibaiaren arro hidrografikoan luzatzen da eta 220 km$^2$ hartzen ditu guztira. Estuarioa da erreserbaren bihotza eta ardatza. Izan ere, bertan nahasten dira Oka ibaiaren ur geza eta itsasoko ur gazia. Padurak, labarrak, hondartzak eta arrantzale-herriak aurkituko dituzue, eta txakurrek eta gizakiek elkarrekin burutzeko abenturak.**

**Urdaibain edertasun itzeleko milaka plan, ibilaldi eta txoko biltzen dira. Ingurua txakurrarekin ezagutzen hasteko ibilaldia aipatuko dugu hemen.**

## Txakurzaleentzako ibilbidea: Kanala, Atxarre eta bertako artadia.

Atxarreko ibilbide biribilak Bizkaiko basorik trinkoenetako eta ederrenetako batean barna eramango gaitu, Kanalatik abiatu eta San Martingo baselizaren albotik doan bideari jarraituz. Laster helduko gara Dantzalekuko bidegurutzera eta Atxarrerako gailurrera (312 m). Urdaibaiko paisaiaren zati handi bat ikusteko talaia paregabea da. Akorda, Gometxo eta Antzora auzoak atzean utzi ondoren, estuariotik hurbilen dagoen azken zatira iritsiko gara, kostaldeko eta hareatzetako ikuspegi ederra aurrean.

***Denbora: 2 ordu eta 45 minutu** (8,4 km)*

***Plan ederra da** Urdaibai ezagutzeko eta bertako bistarik ederrenetako batez gozatzeko, eta amaieran txakurrarekin Kanalako hondartzan ibiltzeko (bainu-sasoitik kanpo).*

# 5 gune eder! Euskal Kostaldean nahitaez bisitatzekoak dira:



## Sopela
## Uribe Kostako labarrak

Getxotik hasi eta Plentziaraino, ikuspegia ezin ederragoa da. Bidean, Sopelako eta Barrikako hondartzetara jaisteko aukera ere izango duzue. Eta ibilaldia amaitzeko, zer hobeagorik Plentziako arrantza-portua baino.

## Bermeo
## Gaztelugatxeko Doniene

Naturaren ederra da: uharte txiki bat, arrokan egindako 241 mailen bitartez lotuta lehorrari. Eta goiko aldean, baseliza xarmagarria eta Kantauri Itsasorako ikuspegi sinestezina. Behin gora helduta, ez ahantzi baselizako kanpaia hiru bider jotzea eta desio bat eskatzea.





## Lekeitio
## Santa Katalinatik Farora arteko ibilaldia

20 minutuko ibilbide ederra, Lekeitioko arrantzale-herritik Euskadin bisita daitekeen itsasargi bakarreraino (ezin da txakurrarekin sartu baina ibilaldiak merezi du). Lekeitio bizkaitarren opor-helmuga nagusietako bat da, eta ospetsuak dira bertako hondartzak.

## Zarautz-Getaria ibilbidea

4 km-ko bidea, bi herri ederrak lotzen dituen kostaldeko errepidearen ertzetik, Kantauri itsasoaren indarra begi-bistatik galdu gabe. Getariara iristen zaretenean, arrantza-portura jo dezakezue, txakolin eder batekin amaitzeko ibilia. Ibilbide biribila ere egin dezakezue, mendian zehar itzuliz, baleen talaien bideari jarraituz.



Toki guzti hauek Euskal Kostaldeko planoan kokatuta aurki ditzakezu (32-33 orr.)



## Hondarribia
## Txingudiko badia

Hondarribia, Irun eta Hendaia, hiru herri Bidasoa ibaiaren bokalean dagoen Txingudiko badiari begira. Mendizaleentzat, Jaizkibel mendiko labarren bidea egitea gomendatzen dugu; eta mendizaleentzat nahiz mendizale ez direnentzat, harresiz inguratutako Hondarribiko alde zaharrean itzulia egitea eta Marina auzoko terraza batean esertzea.



# Txakurrarekin hondartzara joatea




**Euskadiko eta udalerrietako arautegiek debekatu egiten dute bainu-sasoian eta -ordutegian txakurrarekin hondartzara joatea. Alabaina, ondoren zerrendatuko ditugun hondartzetan, urteko gainerako hiletan eta udako gauetan ibil zaitezke txakurrarekin. Begiratu hondartzetako karteletan ea txakurra solte ibil daitekeen ala nahitaez lotuta joan behar duen.**

## DENBORALDITIK KANPO ORDU-MURRIZKETARIK GABE:

**Irailaren 16tik ekainaren 14ra:**
- Hondarribiko hondartza (Hondarribia)
- Itzurun hondartza (Zumaia)

**Urriaren 1etik maiatzaren 31ra:**
- Arena hondartza eta Zierbenako hondartza (Zierbena)
- Ereaga eta Arrigunaga hondartzak (Getxo)
- Gorlizko hondartza (Gorliz)
- Plentziako hondartza (Plentzia)
- Bakioko hondartza (Bakio)
- Karraspio hondartza (Mendexa)
- Alkolea, Ondarbeltz, Mutriku eta Saturraran hondartzak (Mutriku)
- Aritzatxu hondartza (Bermeo)
- Santiago eta Lapari hondartzak (Deba)
- Kontxa, Zurriola eta Ondarreta hondartzak (Donostia)

**Urriaren 1etik apirilaren 30era:**
- Isuntza hondartza (Lekeitio)
- Ogeia hondartza (Ispaster)

**Urriaren 13tik Aste Santuaren hasierara arte:**
- Laidatxu eta Hondartzape hondartzak (Mundaka)
- Laga eta Laida hondartzak (Ibarrangelu)
- Zarauzko hondartza (Zarautz)

**Urriaren 15etik Aste Santuaren hasierara arte:**
- Gaztetape eta Maikorbe hondartzak (Getaria)

**Azaroaren 1etik apirilaren 30era:**
- Arriatera-Atxabiribil eta Barinatxe (La Salvaje) hondartzak
- Eako hondartza (Ea)

## DENBORALDITIK KANPO ORDU-MURRIZKETAREKIN:

**UUrriaren 1etik maiatzaren 31ra** - Arrigorri hondartza (Ondarroa) 22:00etatik 09:00etara




## BAINU-DENBORALDIAN ORDU-MURRIZKETAREKIN:

**Bainu-denboraldian honako hondartza hauetan sar zaitezke txakurrarekin, betiere lotuta badaramazu, eta honako data- eta ordu-murrizketa hauekin.**

**Aste Santutik urriaren 1era arte.**

- Antilla hondartza (Orio) 21:00etatik 06:00etara

**Aste Santutik urriaren 12ra arte:**

- Plentziako hondartza (Plentzia) 21:00etatik 06:00etara
- Zarauzko hondartza (Zarautz) 21:00etatik 06:00etara
- Laidatxu eta Hondartzape hondartzak (Mundaka) 21:00etatik 06:00etara

**Aste Santutik urriaren 14ra arte**

- Gaztetape eta Maikorbe hondartzak (Getaria) 21:00etatik 06:00etara

**Ekainaren 1etik irailaren 30era:**

- Aritzatxu hondartza (Bermeo) 20:00etatik 11:00etara
- Ereaga eta Arrigunaga hondartzak (Getxo) 20:00etatik 09:30era
- Arrietara, Atxabiribil eta Barinatxe-La Salvaje hondartzak (Sopela) 20:00etatik 09:30era
- Aritzatxu hondartza (Bermeo) 20:00etatik 11:00etara
- Muriola hondartza (Barrika) 20:00etatik 06:00etara

# Euskal Kostaldea: Informazio praktikoa

Dog-friendly negozio onenak aurkituko dituzu hemen, txakurrentzako aisialdi-eremuak eta garraioak. Zu eta zure txakurra ongi etorriak izango zarete bertan. Gogoratu beti txakurren sarbideari buruzko politika osoa eta eguneratua kontsultatu behar duzula, baita argazkiak, iritziak, kokapen zehatza eta harremanetarako beste moduak ere, negozioen webgunean edo txakurrekiko turismo eta aisiari buruzko orri espezializatuetan.

## Bizkaia

### OSTATUAK

**Busturia**
**Angiz apartamentu-hotela***
+34 946 871 041

**Lekeitio**
**Trinkete aterpetxea**
+34 946 844 175

**Villa Itsaso apartamentu-hotela*****
+34 606 005 005

**Zubieta hotela*****
+34 946 843 030

**Mendexa**
**Leagi kanpina**
+34 946 842 352

**Muskiz**
**Las Palmeras hotela***
+34 946 706 392

**Ondarroa**
**Pensión Arrigorri Ostatu***
+34 946 830 047

### TABERNAK ETA JATETXEAK

**Barrika**
**MILAGROS BARRIKA**
+34 946 770 235

**Muskiz**
**Bar Burduntzi**
+34 946 707 529

**Sopela**
**Kafe Taberna Lurren**
+34 652 764 632

### SALTOKIAK

**Bermeo**
**Fidel Bilbao**
*Dekorazioa eta etxea*
+34 946 880 412

**Sopela**
**Ika Peluqueros**
+34 946 761 560

**Peña Txuri Surf Eskola**
*Kirol- eta abentura-denda*
+34 600 300 244

### ZER EGIN?

**Mundaka**
**Izkira Urdaibai Mundaka**,
*Sukarrieta eta Laida hondartzaren arteko itsas garraioa. Ibilaldi turistikoak Gaztelugatxen eta Elantxoben, baita, itsasadarrean barrena, Mundaka-Gernikan ere.*
+34 633 331 230

**Plentzia**
**Plasentia de Butrón museoa**
+34 946 773 725

### TXAKUR-NEGOZIOAK

**Lekeitio**
**Belazahar**
*Maskotentzako osagarri-denda*
+34 946 840 671

**Sopela**
**Lola y Tato**
*Hezitzaileak/ trebatzaileak*
+34 946 551 151

**Mundo Verde, Garden Center**
*Maskotentzako osagarri-denda*
+34 609 414 441

### ALBAITARITZA-KLINIKAK

**Bermeo**
**Mika albaitaritza-zentroa**
+34 944 650 512

**Sopela**
**Uribe Kosta albaitaritza-klinika**
+34 946 762 802

### ALBAITARITZA-KLINIKAK
**24 orduko larrialdi-zerbitzua dutenak**

**Lekeitio**
**Zaunka Lekeitio albaitaritza-klinika**
+34 946 840 671
**24 orduko larrialdi-zerbitzua**
**+34 607 323 006**

## Gipuzkoa

### OSTATUAK

**Aizarnazabal**
**Sarasola Zaharra nekazaritza-turismoa**
+34 634 422 138

**Deba**
**Eleizondo landetxea**
+34 943 199 033

**Itxaspe kanpina**
+34 943 199 377

**Txindurri Iturri nekazaritza-turismoa**
+34 699 684 490

**Getaria**
**Saiaz Getaria hotela****
+34 943 140 143

**Hondarribia**
**Palacete hotela***
+34 943 640 813

**Irun**
**Alcazar hotela*****
+34 943 620 900

**Atalaia hotela*****
+34 943 629 433

**Ibis Irun hotela***
+34 943 636 232

**Oiartzun**
**Oliden kanpina**
+34 943 490 728

**Zarautz**
**Pensión Sömn Hipsuites ****
+34 943 229 141

**Zumaia**
**Camping & bungalows Zumaia**
+34 943 860 475

### TABERNAK ETA JATETXEAK

**Deba**
**Txindurri Iturri sagardotegia**
+34 699 684 490

**Hondarribia**
**Arraunlari Berri jatetxea**
+34 943 578 519

**Irun**
**Felix Manso Ibarla jatetxea**
+34 943 841 964

**Errenteria**
**Gaztelu Ostatua jatetxea**
+34 943 511 084



## SALTOKIAK

**Hondarribia**
**Benttu arrandegia**
**Arrandegia**
+34 672 484 529

**Hache**
*Moda eta osagarriak*
+34 747 481 503

**Hemeshop**
*Moda eta osagarriak, kirol- eta abentura-dendak*
+34 617 330 323

**Nautica Hiruarri**
+34 943 646 184

**Errenteria**
**Hache**
*Moda eta osagarriak*
+34 943 345 334

**Zarautz**
**Cazalis**
*Moda eta osagarriak*
+34 943 130 482

**Garbiñe Arregi**
*Moda eta osagarriak*
+34 635 706 265

**Zumaia**
**Abaila Kooperatiba**
*Telekomunikazioak*
+34 943 569 296

**Bayona Autoak**
*Automobilak konpontzeko tailerra*
+34 943 862 247

**Blue Nails & Beauty**
+34 646 443 727

**Mão arte-estudioa**
*Arte-estudioa*
+34 688 734 732

**Miren ile-apaindegia**
*Ile-apaindegia*
+34 645 723 976

**Redymar**
*Ur-motorren alokairua*
+34 943 143 176

## ZER EGIN?

**Hondarribia**
**Ocean Tours Hondarribia**
*Itsasontzi-ibilaldi audiogidatuak, arrantza-txangoak eta ontzien alokairua.*
+34 623 924 050

**Pasaia**
**Mater Museoa**
+34 619 814 225

**Errenteria**
**San Marko Gotorlekuko museoa**
+34 943 449 638

**Zumaia**
**Basque Destination**
*Bidaia-agentzia; txakurrarekin ibiltzea baimendua duen ostatu-, jarduera- eta garraio-sare bat dugu.*
+34 943 326 306

**Begi Bistan**
*Itsasontzi-ibilaldiak eta Flyscheko oinezko bisita gidatuak (trekking-a).*
+34 657 794 677

## TXAKUR-NEGOZIOAK

**Aia**
**Manterola txakurrentzako egoitza**
+34 943 835 451

**Hondarribia**
**Endanea Garden Mascotas**
*Maskotentzako osagarri-denda*
+34 943 641 710

**Bi Lagun txakurrentzako egoitza**
+34 943 645 279

**Irun**
**Adizki txakurrentzako ile-apaindegia**
+34 943 632 510

**Bahía De Txingudi txakurrentzako egoitza**
+34 943 632 712

**Malas Pulgas**
*Txakurrentzako ile-apaindegia*
+34 943 667 090

**Uno Más txakurrentzako ile-apaindegia**
+34 943 013 303

**Errenteria**
**Konpa Mascotas Low Cost By Euskalmushing - Errenteria**
*Maskotentzako osagarri-denda*
+34 943 004 052

## ALBAITARITZA-KLINIKAK

**Hondarribia**
**Sokoa albaitaritza-klinika**
+34 943 644 657

**Irun**
**Amaita Veterinaria**
*Albaitaritza-klinika, txakur-zaindegia/ paseatzaileak, ile-apaindegia, estetika eta nork bere burua garbitzea*
+34 943 620 230
+34 618 893 420

**Bkan albaitaritza-klinika**
+34 943 633 764

**Dumboa albaitaritza-klinika**
+34 943 621 765

**Muxkilda albaitaritza-klinika**
+34 943 476 005

**Orio**
**Katu Horia Albaitaritza-klinika**
+34 943 116 699
+34 668 891 129

## ALBAITARITZA-KLINIKAK
**24 orduko larrialdi-zerbitzua dutenak**

**Irun**
**Plaiaundi albaitaritza-klinika**
+34 943 614 942
**24 orduko larrialdi-zerbitzua: +34 687 409 777**

**Txingudi albaitaritza-klinika**
+34 943 612 242
**24 orduko larrialdi-zerbitzua: +34 608 576 505**

**Irunvet Veterinarios**
+34 943 245 973
**24 orduko larrialdi-zerbitzua: +34 606 122 091**



# Mendiak eta bailarak

Aurkitu txakurrarekin batera Paradisu Berdea, hizki larriz. Izan ere, santutegiak, kobazuloak, legendak eta milaka urteko tradizioak gordetzen dituzte Euskal Herriko mendi eta bailarek. Aurkitu txakurrarekin batera 7 natur parkeak eta naturaren erritmoan bizi diren herriak, betiko gastronomiaren sekretua gordetzen dutenak.

## Nerbioi ibaiaren ur-jauzia

**Iberiar Penintsulako ur-jauzirik handiena da: 300 metrotik gorako jauzi librea, Araba, Burgos eta Bizkaia probintzien artean. Ekaitz handi baten ondoren, euri asko egin ondoren edo elurra izozten denean joatea gomendatzen dugu.**

**Urduñako portutik** irits daiteke bertara. Behin portu gaina zeharkatua, errepidean aurrera egin behar dugu ezkerraldean **Santiago mendiaren** sarrera aurkitu arte. Txabola txiki bat, pasabide kanadar bat eta lehen aparkalekua daude bertan. Gainerako bidean ez dago galtzerik, erraz-erraza baita: baso bidea jarraitzea baino ez dugu, guretzako aparkalekurik egokiena aurkitu arte.

***Denbora: 2 ordu** (joan-etorria)*

***Plan ederra da** adin eta egoera guztietako umeak eta txakurrak dituzten familientzat. Oso ibilbide erraza da.*

Handik hurbil, **Goiuriko ur-jauzia** ere ikus dezakegu. Txakurra ez bada altueraren beldur, amildegiaren ertzean egin duten behatokira joan zaitezkete. Ur-jauzi miresgarriaren alboan hegan egiten duzuela sentituko duzue. Ikuspegian bertan, inguruan balio ekologikorik handienetako pagadi bat antzemango duzue.





# Atxondoko bailara, isiltasuna ere entzun egiten den lekua.

**Bilbotik 35 km ingurura dago Atxondoko bailara xarmagarria, Mariren bizilekua den Anbotoko mendilerroaren babesean.**

## Txakurzaleentzako ibilbidea: Arrazolako bide berdea.

10 kilometroko ibilbidea da (joan-etorria). Harri koxkorrez egindako errepide erraza, ikuspegi eder-ederrekin, bai **Anbotoko mendilerrorantz (Urkiolako natur parkean)**, bai inguruko landa-mundurantz (noranahi begiratuta ere ikusiko dituzu baserriak, baselizak eta belardiak). Bidean lasaitasuna da jaun eta jabe, oinezkoentzako bidea baita: gainerako garraiobideek (autoek, bizikletek nahiz patinek) debekatuta dute bertatik ibiltzea *Txakurrek uneoro lotuta ibili behar dute.*

# Ibaieder urtegia (Azpeitia)

**Urtegi horrek 68.000 lagun hornitzen ditu urez Azkoitian, Azpeitian, Zestoan, Zumaian, Getarian, Zarautzen eta Orion.**

Urtegiaren inguruko bidea lau-laua da, inolako zailtasunik gabea. Guztira 6,8 km-ko ibilbidea da; 1,7 km gehiago **Nuarbetik** abiatuz gero. Ibilbidean zehar zurezko jesarlekuak eta **Itaun izeneko iturria aurkituko** ditugu, bide zaharra eta berria bereizten dituen zubiaren gainean.





## Euskal ardi txakurra, Euskadiko txakur-arraza autoktonoa.

*«Euskal Artzain Txakurra» da arrazaren izen ofiziala eta mendeetan erabili dute ardi-txakur gisa eta ganadua zaintzen. Bi aldaera daude: Gorbeiakoa eta iletsua. Txakur indartsua da, bizia eta arina, oso langilea eta fina. 20 kilo inguru izaten ditu batez beste.*



# Urolako bide berdea

**Azpeitia eta Legazpi artean, bide berde horrek Gipuzkoako Urola Erdiko eta Urola Garaiko paisaia menditsua zeharkatzeko gonbidapena luzatzen digu.**

22,5 km-ko ibilbide **ikusgarria**, hainbat puntu interesgarri dituena tartean. **40 zubi eta 19 tunel** zeharkatuko ditugu, azken horiek guztiak argiztatuta. Interesgunerik garrantzitsuenen artean daude **Loiolako Santutegia** eta **Trenbidearen Euskal Museoa.**



## Bizkaia
## Zallatik Balmasedara.

7,6 km-ko ibilbide polita (4 ordu inguruan egitekoa), zailtasun gutxikoa eta etxe historikoez, baselizez… inguratua. Balmasedan amaitzen da, Enkarterrietako hiriburuan. Garai batean, Bilbo eta Gaztela lotzen zituen errepideak zeharkatzen zuen eskualdea, Kadagoa ibaiarekin bat.





## Bizkaia
## Omako baso margotua (Kortezubi)

Urdaibaiko biosfera-erreserban dago. 1984an Agustin Ibarrola eskultore eta margolari bilbotarrak egindako baso sorginduak artearen eta naturaren arteko lotura berri bat adierazten du.

## Gipuzkoa
## Aralarko megalitoak

Aralarko Parke Naturalean 80 megalito daude katalogatutako, hariztiz, pagadiz eta larre zabalez betetako ingurune batean. Horietatik 30 Gipuzkoan daude.





## Gipuzkoa
## Talaia ibilbidea. Hondarribia-Pasaia

21 km-ko ibilbide honek (7 ordu, gutxi gorabehera). Hondarribitik Pasaiara eramango zaituzte. Gipuzkoako itsasbazterra miresteko ezin hobea, Higer lurmuturretik abiatuta hainbat kala eta kalatxo ikusiko baitituzue alde batetik; bestetik, Jaizkibel mendia. Eraman ura txakurrarentzat, bidean ez duzulako edateko ura duen iturririk aurkituko.



## Araba
## Caicedo Yuso lakuko edo Arreoko ibilbidea (Gesaltza).

Euskal Herri laku naturalik garrantzitsuena da. 10,5 km-ko ibilbide biribila, Gesaltzako eta lakuko ikuspegiez gozatzeko txakurrarekin batera.

# Bide berdeak

Trenbide zaharrak dira, bizikletaz eta oinez ibiltzeko bidetzat egokitu direnak. 10 bide berde, lau hankako lagunarekin 10eko plana egiteko.

**ARDITURRI** - 11,2 km. Pasai Antxotik edo Lezotik abiatuta, Oiartzungo Arditurriko meategietaraino (Gipuzkoan).

**ARRAZOLA** - 5 km. Apatamonasteriotik Errotabarriko geltoki zaharreraino, Atxondon (Bizkaian).

**ATXURI** - 3,8 km. Mungiatik hasi eta Artebakarra mendiaren magaleraino, Bizkaian.

**BIDASOA** - 44 km. Irungo Behobia auzotik (Gipuzkoan) hasi eta Legasa Bertizaranako Legasaraino (Nafarroan).

**VASCO NAVARRO** trenbidea - 85 km. Arlabango mendatetik hasi (Araba eta Gipuzkoa arteko mugan) eta Lizarraraino (Nafarroan).

**ITSASLUR** - 3,5 km. Pobeñatik Kobaronera (Bizkaian).

**BURDINAZKO MENDIAK** - 31 km. Traslaviñatik Gallartara (Bizkaian).

**MUTILOA - ORMAIZTEGI** - 6,7 km. Barnaola baserritik hasi (Mutiloan) eta Lointziko mendi magaleraino (Ormaiztegin), biak ala biak Gipuzkoan.

**PLAZAOLA - LEITZARAN** - 45 km. Andoaindik (Gipuzkoan) Kaxarnara (Nafarroan).

**UROLA** - 22,5 km.Azpeitia eta Legazpi artean (Gipuzkoan).

# Parke naturalak

Deskubritu lurralde osoan banatuta dauden parke naturalen sarea, naturaz gozatzeko, baina zerbitzu guztiak eskura. Parke natural bakoitzak berezko izaera du: desberdina izatearen aberastasuna dakarkien biztanle eta ohitura bereziak, landaredi eta fauna propioa… Gozatu zure txakurrarekin batera!

**ARABA**
- Izkiko Parke Naturala
- Valderejoko Parke Naturala

**BIZKAIA**
- Armañongo Parke Naturala

**BIZKAIA-ARABA**
- Gorbeiako Parke Naturala
- Urkiolako Parke Naturala

**GIPUZKOA**
- Aiako Harria Parke Naturala
- Pagoetako Parke Naturala

**GIPUZKOA-ARABA**
- Aizkorri-Aratz Parke Naturala

**GIPUZKOA-NAFARROA**
- Aralarko Parke Naturala

**Informazio gehiago eta harremanetarako, www.turismo.euskadi.eus helbidean.**

# Mendiak eta bailarak: Informazio praktikoa

## OSTATUAK

**ARABA: Agurain**
**Zadorra Etxea landetxea**
+34 656 716 126

**ARABA: Añana**
**Madera y sal landetxea**
+34 600 549 529

**ARABA: Asparrena**
**Legaire Etxea landetxea**
+34 607 547 916

**ARABA: Aiara**
**Urdinetxe landetxea**
+34 656 702 370

**ARABA: Pobes-Erriberagoitia**
**Lagun Etxea landetxea**
+34 622 187 157

**ARABA: Gaubea**
**Montehermoso baserria**
Landa-apartamentuak
+34 607 383 747

**Tierra y Madera landetxea**
+34 600 549 529

**ARABA: Zigoitia**
**Goikuri Baserria landetxea**
+34 615 782 323

**Izpiliku landetxea**
+34 945 464 154

**ARABA: Zuia**
**La Casa del Patrón hotela****
+34 945 462 528

**BIZKAIA: Abadiño**
**Murueta nekazaritza-turismoa**
+34 658 747 471

**BIZKAIA: Amorebieta-Etxano**
**Euba hotela*****
+34 946 300 630

**Harrison Etxea hotela****
+34 946 300 530

**BIZKAIA: Arrigorriaga**
**Pensión ibis Budget Bilbao Arrigorriaga**
+34 946 712 584

**BIZKAIA: Atxondo**
**Olazabal Azpikoa landetxea**
+34 619 322 252

**BIZKAIA: Balmaseda**
**San Roque hotela****
+34 946 203 368

**BIZKAIA: Durango**
**Dukebaso nekazaritza-turismoa**
+34 675 706 055

**BIZKAIA: Ermua**
**Villa de Ermua hotela***
+34 943 170 860

**BIZKAIA: Etxebarria**
**Antsotegi Errota hotela****
+34 946 169 100

**BIZKAIA: Gordexola**
**Isasi hotela***
+34 946 798 224

**BIZKAIA: Karrantza**
**Gailurretan landetxea**
+34 946 806 667

**Vicente Pallotti espiritualtasun- eta harrera-etxea***
*Hotela eta bainuetxea*
+34 946 806 002

**BIZKAIA: Mungia**
**Palacio Urgoiti hotela****
+34 946 746 868

**Txokoetxe landetxea**
+34 615 799 607

**BIZKAIA: Orozko**
**Pensión Artiñano Etxea***
+34 622 048 798

**BIZKAIA: Sopuerta**
**Pikatzaenea apartamentua**
+34 617 471 936

**BIZKAIA: Turtzioz**
**Amaloka Holiday Home landetxea**
+34 680 115 615

**BIZKAIA: Zeanuri**
**Etxegana hotela****
+34 946 338 448

**GIPUZKOA: Aia**
**Landarbide Zahar nekazaritza-turismoa**
+34 681 216 756

**GIPUZKOA: Aizarnazabal**
**Sarasola Zaharra nekazaritza-turismoa**
+34 634 422 138

**GIPUZKOA: Tolosa**
**Oria hotela***
+34 943 654 688

## TABERNAK ETA JATETXEAK

**ARABA: Aramaio**
**Iturrieta sagardotegia**
+34 685 721 593

**ARABA: Zuia**
**La Casa del Patrón jatetxea**
+34 945 462 528

**BIZKAIA: Abadiño**
**Keiran Irish Pub Matiena**
+34 946 200 633

**BIZKAIA: Amorebieta-Etxano**
**Uxarte sagardotegia**
+34 946 308 815

**BIZKAIA: Balmaseda**
**Convento San Roque jatetxea**
+34 946 102 268

**BIZKAIA: Gernika-Lumo**
**Musutruk Kafe Antzokia**
*Kafe-antzokia*
+34 946 252 408

**BIZKAIA: Karrantza**
**Gailurretan jatetxea**
+34 946 806 667

**BIZKAIA: Loiu**
**Gozkoetxe Jatetxea**
+34 946 673 647

**BIZKAIA: Maruri-Jatabe**
**Jatape garagardotegia**
+34 946 743 515

**BIZKAIA: Mungia**
**Fonda jatetxea**
+34 946 744 641

**BIZKAIA: Mungia**
**Harria jatetxea (Palacio Urgoiti)**
+34 946 746 868

**BIZKAIA: Zamudio**
**Gaminiz jatetxea**
+34 944 317 025

**GIPUZKOA: Andoain**
**Xarma Andoain jatetxea**
+34 943 327 726

**GIPUZKOA: Arrasate**
**Gastroteka 19/90 Arrasate**
+34 943 829 023

**Itzala Taberna**
+34 943 773 029

**GIPUZKOA: Ordizia**
**Gastroteka 19/90 Ordizia**
+34 943 884 079

**GIPUZKOA: Tolosa**
**Neder kafetegia**
+34 665 445 454

## SALTOKIAK

**ARABA: Amurrio**
**Bai Bada! liburu-denda**
+34 609 555 410

**Susana Estética y Belleza**
+34 945 026 210

**ARABA: Laudio**
**Mokka Chica**
*Moda eta osagarriak*
+34 944 360 044

**Mokka Chico**
*Moda eta osagarriak*
+34 944 744 894

**BIZKAIA: Abanto Zierbena**
**Rojo Gallarta**
*Moda eta osagarriak*
+34 946 362 295

**BIZKAIA: Gernika-Lumo**
**Euskal Souvenirs**
+34 946 251 930

**Argizti optika**
+34 943 652 663

**GIPUZKOA: Arrasate**
**Maitia**
*Moda eta osagarriak*
+34 942 049 923

**Sikol Lentzeria**
*Lentzeria-denda*
+34 943 798 932

**GIPUZKOA: Azkoitia**
**Aizterri Home**
*Dekorazioa eta etxea*
+34 943 389 124

**Naroa Valor Estudioa**
*Estetika-zentroa*
+34 650 616 537

**GIPUZKOA: Azpeitia**
**Euskadi Sport**
*Kirol- eta abentura-denda*
+34 943 812 309

**Garai ile-apaindegia**
*Ile-apaindegia*
+34 943 157 010

**Larrañaga Kirolak**
*Kirol- eta abentura-denda*
+34 943 811 365

**Mima Etxeko Osagarriak**
*Dekorazioa eta etxea*
+34 645 005 065

**Prest Tindategia**
+34 943 813 413

**GIPUZKOA: Beasain**
**Alzuaran**
*Moda eta osagarriak*

*Jose de Artetxe kalea 9*
+34 943 080 406

*Bideluze plaza 2*
+34 943 882 185

*Xabier Munibe kalea 2*
+34 943 026 797

**La Huerta fruta-denda**
*Fruta-denda*
+34 943 675 466

**Tres Sesenta ile-apaindegia**
*Ile-apaindegia*
+34 623 165 787

**GIPUZKOA: Bergara**
**Etxeberria bitxitegia**
+34 943 762 394

**GIPUZKOA: Hernani**
**Arkiled**
*Soinuaren, ikuskizunetako argiztapenaren eta ikus-entzunezkoen eremu profesionalarentzako mota guztietako materialak saltzen dituen enpresa.*
+34 943 048 478

**Narama denda**
*Moda eta osagarriak*
+34 688 733 060

**Nere Bii**
*Denda naturista*
+34 679 559 318

**Urrats Oinetakoak**
*Zapata-denda*
+34 943 556 564

**GIPUZKOA: Oiartzun**
**Leroy Merlin Oiartzun**
+34 943 418 900

**GIPUZKOA: Ordizia**
**ACV Multimedia**
*Web-orrien diseinua, diseinu grafikoa...*
+34 943 805 799

**Ediren Bidaiak**
*Bidaia-agentzia*
+34 943 542 185

**Gofi berri**
Haurrentzako arropa-denda
+34 943 163 122

**Ordiziako Merkatari, Ostalari eta Zerbitzu Enpresen Elkartea**
+34 943 887 340

**Urdanet**
*Zerbitzu informatikoak*
+34 943 164 210

**Vicuña Confección**
*Moda eta osagarriak*
+34 943 881 220

**GIPUZKOA: Tolosa**
**Arteka**
*Eskulanen eta arte ederren denda*
+34 943 655 577

**Cerrajeria KeyLan**
+34 943 650 313

**Dekorazioa eta etxea Ederhome**
+34 943 477 810

**F&J**
*Moda eta osagarriak*
+34 943 119 504

**Goena**
*Teknologia eta etxetresna elektrikoak*
+34 943 652 514

**Mail Boxes Etc.**
*Bidalketa- eta logistika-soluzioak*
+34 943 016 160

**Argizti optika**
+34 943 673 411

**ZÜR studio**
*Arkitektura-estudioa*
+34 943 671 146

**GIPUZKOA: Urretxu**
**Argizti Optika**
+34 943 673 411

**GIPUZKOA: Villabona**
**Duna Oinetakoak**
*Zapata-denda*
+34 943 054 783

**Ugalde Oinetakoak**
*Zapata-denda*
+34 943 692 455

## ZER EGIN?

**BIZKAIA: Abadiño**
**Alluitz Natura**
*Artzain egun batez, eta xaboiaren, artilearen eta plastilina naturalaren tailerrak, ingurune zoragarri batean, zure txakurrarekin batera.*
+34 688 875 120

**BIZKAIA: Ajuria**
**Berroja upategia**
*Dastatzeko eta mahastiak bisitatzeko jarduerak.*
+34 944 106 254

**BIZKAIA: Balmaseda**
**Balmasedako Turismo Bulegoa**
+34 946 802 976

**BIZKAIA: Elorrio**
**Elorrioko Turismo Bulegoa**
+34 946 820 164

**BIZKAIA: Ermua**
**Inguru Abentura**
*Mota guztietako jarduerak, ingurune naturalean, Euskal Autonomia Erkidegoan.*
+34 635 748 948

**BIZKAIA: Karrantza**
**Karpin Fauna**
*Nahiz eta ezin den parkea txakurrarekin bisitatu, bertan hartutako animalien babes- eta segurtasun-arrazoiengatik, badugu zaindegia sarreran. Zaindutako esparrua da, lasaia, itzalpean dago, eta soropila eta ur freskoa ditu.*
+34 946 107 066

**BIZKAIA: Kortezubi**
**Basondo - Faunaren babeslekua**
*Basondo hainbat suspertze-zentrotatik datozen basafaunaren ale berreskuraezinak hartzeko zentro bat da. Publiko orokorrarentzat irekita dago, helburu pedagogikoetarako.*
+34 946 254 436

**BIZKAIA: Otxandio**
**Hontza Extrem abentura-parkea**
+34 633 468 947

**GIPUZKOA: Oiartzun**
**Soinuenea Fundazioa**
*Soinuenea musika folkaren inguruko museo eta dokumentazio-zentro bat da.*
+34 943 493 578

## TXAKUR-NEGOZIOAK

**ARABA: Barrundia**
**Ingravity Dreams**
*Bienestar Animal*
*Zure txakurrarekin batera egiteko jarduera ugari: usaimen-jokoak, disc dog-a, igerileku- eta masaje-saioak, eta lesioak sendatzeko zerbitzuak.*
+34 945 403 824

**BIZKAIA: Bedia**
**Euskalmushing Tienda Bedia**
*Maskotentzako osagarri-denda*
+34 946 410 116

**BIZKAIA: Dima**
**Ibone Barrenetxea**
*Txakurren eta animalien argazkiak*
+34 622 517 303

**BIZKAIA: Gatika**
**Txiki Eder txakurrentzako zentroa**
*Hezitzaileak/ trebatzaileak*
+34 610 402 636

**BIZKAIA: Iurreta**
**Konpa Mascotas Low Cost By Euskalmushing - Iurreta**
*Maskotentzako osagarri-denda*
+34 943 849 233

**BIZKAIA: Loiu**
**Aiartza txakurrentzako hotela**
*Hezitzaileak/trebatzaileak*
+34 944 542 712

**GIPUZKOA: Andoain**
**Kukulcan**
*Albaitaritza-klinika, ile-apainketa, estetika eta nork bere txakurra garbitzea, maskotentzako osagarri-denda*
+34 662 529 490

**GIPUZKOA: Errenteria**
**Kabala animalientzako denda**
*Maskotentzako osagarri-denda*
+34 943 535 751

**GIPUZKOA: Tolosa**
**Urubi txakurrentzako denda eta heziketa**
+34 943 671 866

**GIPUZKOA: Villabona**
**Erreka, txakur eta katuentzako hotela**
+34 660 056 168

## ALBAITARITZA-KLINIKAK

**BIZKAIA: Basozabal**
**Sondika albaitaritza-klinika**
+34 944 535 208
+34 607 856 039

**BIZKAIA: Durango**
**Etorbide albaitaritza-klinika**
+34 946 201 742
+34 689 391 119

**BIZKAIA: Ortuella**
**Ortuella albaitaritza-klinika**
+34 946 353 655

**BIZKAIA: Sodupe**
**Mendieta albaitaritza-klinika**
+34 946 409 888

## ALBAITARITZA-KLINIKAK

**24 orduko larrialdi-zerbitzua dutenak**

**ARABA: Amurrio**
**Arabako Medikuntza eta Albaitaritza Institutua**
+34 945 028 910
**24 orduko larrialdi-zerbitzua:**
+34 656 788 800

**BIZKAIA: Abadiño**
**Gure Kide albaitaritza-klinika**
+34 946 201 621
**24 orduko larrialdi-zerbitzua:**
+34 655 881 422

**BIZKAIA: Balmaseda**
**CC Veterinaria Balmaseda**
+34 946 800 998
**24 orduko larrialdi-zerbitzua:**
+34 677 502 775:

**BIZKAIA: Durango**
**Zaunka albaitaritza-klinika**
+34 946 030 671
**24 orduko larrialdi-zerbitzua:**
+34 607 323 006

**BIZKAIA: Muskiz**
**Las Acacias albaitaritza-klinika**
+34 946 852 985
**24 orduko larrialdi-zerbitzua:**
+34 688 818 525

**BIZKAIA: Sodupe**
**Sodupe albaitaritza-klinika**
+34 946 398 489
**24 orduko larrialdi-zerbitzua:**
**+34 670 414 909**

# Arabako Errioxa

Ez dago ezer hoberik ardo eder bat eskuetan eta beste eskuaz txakurra laztantzen iluntzeaz gozatzea baino. Kantabriako eta Toloño mendilerroek bereizten dute Arabako Errioxa Arabako gainerako «kuadriletatik», eta Ebro ibaiak, berriz, Errioxako erkidegotik. Zain duzue, beste inon ez bezalako esperientzia bizi izateko.



## Mahasti-arteko ibilaldia Eltziegon

**Arabako Errioxara joaten zarenean, hutsik egin gabe ibili behar duzue mahastietan, milurteko edari hori prestatzeko prozesu osoa ezagutzeko, eta gero dastatuko dituzuen ardoak ondu dituen lurraz bat egiteko. Eltziego inguruan egiteko ibilaldi erraza gomendatzen dizuegu.**

Urteko sasoiaren arabera, oso paisaia desberdina aurkituko duzue: marroi kolorea neguan eta udaberrian, berde bizia udan eta tonu gorrixka ikusgarriak udazkenean.




Zurezko pasabidez lotutako lurrezko bideak aurkituko dituzue, ibilaldi lasaia egiteko, paisaiaz eta lagunaz gozatzen duzuen bitartean.

Nahitaezko geralekuak: **San Vicente baselizako behatokia** eta **Aires de San Roque behatokia.** Bidean **landaredi mediterraneoari** emandako **lorategi botanikoa** ere aurkituko duzue. **Xavier Arizaga** du izena, XVIII. mendean herriko alkatea eta botikari historikoa izan zenaren omenez.

***Denbora: 45 minutu,*** *argazkitxoren bat egiteko, eta paisaiaz eta lasaitasunaz gozatzeko atsedenaldia barne (2,5 km). Denbora gehixeago beharko duzu, ordea, San Roque baselizako behatokia ikusi nahi baduzu.*

***Plan ederra da*** *gosetzeko ibilaldi lasaia egiteko. Eta, ondoren, ardo kopatxoa Eltziegon. Topa egin txakurra zer ondo ibili den ospatzeko.*

***Egin kontu zure lagunik onenak ez dezan mahatsik jan: txakur askorentzat pozoitsuak dira.***

# Arabako Errioxako herriak ezagutzen

**Herriak bisitatuz hobeto ulertuko duzu eskualdeko ardo-tradizio luzea. Erdi Aroko hiriguneek eta harresiek beste garai batera eramango zaituzte. Terraza batean eseri eta ardo-kopa eder bat hartzea, presarik gabe eta txakurra alboan duzula, Arabako Errioxako herrietan zain dituzun plazerretako bat izango da.**

**Guardiari** - kuadrilla honetako hiriburuari, «ardoaren hiriburua» esaten diote. Deskubritu hirigune historikoko kale estuen, herrian sartzeko ateen eta harresien Erdi Aroko aztarna. Txakurrarekin ezagutzea merezi dute, halaber, Guardia inguruan dauden neolitiko-aroko edo brontze-aroko aztarnek. Euskadiko nekazaritza-komunitateen aztarnarik zaharrenak dira.

**Bastida** - Alde Zaharrean ibili eta Kristo Santuko baselizara igo ondoren, ez ahantzi «Machimbrado» izeneko akueduktuan ibiltzea. Irudi eta sinboloen itxura hartzen duten harri landuak ikusiko dituzue bertan.

**Labraza** - Erdi Aroan sortutako hiribildu harresidun hori 677 metroko altueran dago. Euskadiko hiri gotorturik txikiena da eta 2008an hiri harresidunen sari nazionala eskuratu zuen.

**Samaniego** - 300 biztanle inguruko herri txiki hori Kantabriako mendilerroaren magalean dago. Ezinbestekoa da alde zaharrean txangoa egitea, eliza gotortua eta oinetxeen ederra ikusteko.

**Labarka** - Alde zaharrean Errenazimenduko etxe ugari ikusiko dituzue, fatxadetan ondo zaindutako armarriak erakusten.







# Guardiako aintzira-gunearen ibilbide berdea

**Ibilbide horretan barna lau hezegunek osatutako biotopo babestua ezagutuko dugu. Horietako lehena, Prao de la Paulekoa, urmael txiki bat da, eta gainerako hiruak, berriz (Carralogroño, Musco eta Carravalseca), sasoiko aintzira naturalak dira.**

Hezegune horiek biodibertsitate handia hartzen dute; batez ere hegazti migratzaileak izaten dira, atsedena hartzeko gunetzat erabiltzen baitute eremu hori.

**Txakurren lagunentzako aholkua:** *ibilbidea aintziretatik urrun dago eta ez dago hegaztiei traba egiteko arriskurik; halere, txakurra kontrolpean edukitzea komeni da, segurua baita hegaztien karrankak eta era guztietako hotsak entzungo dituzuela. Uhal luze bat erabiliz gero, zure lagunak askatasun handia izango du eta, aldi berean, beti kontrolpean edukiko duzu. Gogoan izan mundu osoko ornitologiaren zaleak etortzen direla hona hegaztiak beraien ingurunean eta lasai ikustera.*

***Denbora: 2 ordu eta erdi*** *(10 km, ibilbide biribila)*

***Plan ederra da*** *zure txakurrarekin batera, Arabako Errioxa ardoa baino askoz gehiago dela ikasteko.*

***Ez dago ur-gunerik*** *eta, beraz, zu zeu eta zeure txakurra ondo hidratatuta egoteko behar duzuen ura eraman behar duzu.*

# Bastidako haitzetako dolareak

**Mahatsa zapalduz edo prentsatuz muztioa lortzeko harearri gaineko egitura da dolarea.**

Garai batean oso ohikoa zen lapurretak edo suteak jasateko arriskua zeukaten lekuetan jartzea dolareak, egitura apurtezinak eta erregaitzak zirelako eta, era berean, lapurtzeko gaitzak ere bazirelako. XII. eta XV. mendeen bitartean, harresietatik kanpoko lekuetan jartzen zituzten.

Bastidan mahatsa zapaltzeko haitzetako **12 dolare daude bisitatzeko** moduan.

Bisita horri esker, ardoa egiteko modurik zaharrenetako bat ikusiko duzue eta, aldi berean, Bastida inguruan ibilaldi polita egiteko aukera edukiko duzue.

*Haitzetako dolareei buruzko informazio gehiago aurkituko duzue www.alavaturismo.eus webgunean.*



# Arabako Errioxa: Informazio praktikoa




## TABERNAK ETA JATETXEAK

1 **Guardia**
**Villa-Lucia gastronomia-gunea**
+34 945 600 032

## ZER EGIN?

2 **Leza**
**Lozano upategia**
*Upategiak mahastietako esperientziak eskaintzen ditu, hala nola denda, jatetxea eta terrazadun wine bar bat, bezeroei ongietorria egiteko. Legez, txakurrak ezin dira manipulazio- eta upel-eremuetara sartu.*
+34 647 982 470
WhatsApp bidez ere arreta ematen dugu.

3 **Moreda**
**OliOlive**
*Finka erakusgarria, Euskal Herriko hegoaldeko olibadi tradizionalaren ikaskuntza-paisaia gisa diseinatua. Maneiu konbentzional eta degradatu batetik antzinako praktikak eta berrikuntza naturan oinarritutako soluzioekin uztartzen dituen maneiu birsortzaile eta erresiliente baterako trantsizioa erakusten da.*
+34 636 379 877

# Turismo-intereseko gune nagusien dog-friendly politika

**Askotan, zure txakurrarekin ongi etorria zaren tokiak ezagutzea ezeze, lege murriztaileak daudelako edo gunearen kudeatzailearen politika pribatuagatik, berarekin sartzea ezinezkoa duzun beste horiek ezagutzea ere garrantzitsua da.**

Atal honetan, aurretik aipatu ditugun erakargarri turistiko nagusien dog-friendly politika berrikusiko dugu.

**Lekuren bat txakurrik gabe bisitatu nahi baduzue, garaiz planifikatzea gomendatzen dizuegu, jakiteko ostatua hartu duzuen lekuan txakurra uzteko aukera duzun. Aukera hori ez baduzue edota txakurra ezohiko lekuetan eta bakarrik dagoenean urduri jartzen bada, bi aukera dituzue:**

- Bisita luzea bada, bilatu zaindegi bat, txakurra behar bezala zainduko duena.
- Bisita laburra bada eta jende gehiagorekin bazoaz, txandaka joan zaitezkete, txakurra inoiz ez dadin bakarrik egon.

**Ez dago baimenduta txakurrarekin joatea**

**Mugaketa batzuk**

**Txakurrarekin bisitatzeko plan interesgarria**

**Bisitaren gutxi gorabeherako iraupena** (bisita planifikatzeko, txakurrentzako zaindegi batera jo behar baduzu)

## MUSEOAK, ELIZAK ETA KATEDRALAK

**Cristobal Balentziaga Museoa** (Getaria)
< 1 Ordubete.

**Rolls Royce Museoa.** Loizaga dorretxea (Galdames)
< 1 Ordubete.
Txakur guztiak onartzen dituzte lorategian. Pabiloietan, txakur txikiak besotan eramateko aukera dago, baina txakur handiek kanpoan lotuta gelditu behar dute. Zuk ezagutzen duzu inork baino hobeto zeure txakurra, eta zeuk jakingo duzu kanpoan zain gera daitekeen ala txarto pasatuko duen. Beldurtuz gero, gerta liteke urduri jartzea eta zaunkaka hastea edo marmar egitea norbait ondotik pasatzen denean.

**Karten Fournier Museoa** (Gasteiz)
< 1 Ordubete.

**Gernikako Batzarretxea** (Gernika)
1 - 2 ordu.
Txakurrak ezin daitezke eraikinean sartu, baina kanpoko lorategietan ibil daitezke, Gernikako Arbolaren ondoan. Taldean edo beste pertsona batekin bazoaz, txandaka ibil zaitezkete.

**Albaola, Euskal Itsas Ondarea** (Pasao Donibane)
2 - 3 ordu.

**Bilboko Arte Ederren Museoa** (Bilbo)
2 - 3 ordu.

**Guggenheim Bilbao Museoa** (Bilbo)
2 - 3 ordu.

**Victoria Eugenia antzokia** (Donostia)
2 - 3 ordu.

**Principal antzokia** (Gasteiz)
2 - 3 ordu.

**Arriaga antzokia** (Bilbo)
2 - 3 ordu.

**Txillida Leku Museoa** (Hernani)
1 - 2 ordu.

**Loiolako Santutegia** (Azpeitia)
< 1 Ordubete. Ingurua benetan ederra da eta txakurrak eskertu egingo dizu. Taldean bazoazte, txandaka sar zaitezkete

**Arantzazuko Santutegia** (Oñati)
< 1 Ordubete. Ingurua benetan ikusgarria da eta txakurrak eskertu egingo dizu; izan ere, santutegitik hainbat bide abiatzen dira mendian barna, horietako batzuk Urbiara eta, handik gora, Aizkorriko kareharrizko gailur-lerroraino, Aizkorri-Aratz parke natural bikainean. Taldean bazoazte, txandaka sar zaitezkete.

**Gasteizko Santa Maria katedrala** (Gasteiz)
< 1 Ordubete. Ibilian aritzeko lorategi ederrak daude inguruan; kanpotik ikus ditzakezu edota txandaka sartu bestela, barnealdea ere ikusteko.

## UPATEGIAK, SUKALDARITZA-GUNEAK ETA LANTEGIAK.

**Añanako Gatz Harana** (Añana). Debekatuta dago txakurrak sartzea, elikagaiak ekoizteko gunea baita. Kanpoaldean mosketoi bat dago txakurrak lotuta uzteko. Ikusi inguruan egin ditzakezun jarduerak eta gatzagak kanpotik ikusteko ibilbidea. Bisitatu liburuxka honen «Mendiak eta bailarak» ataleko informazio praktikoa.

**Baigorri upategia** (Samaniego)

**El Fabulista upategia** (Laguardia)

**Ysios upategia** (Laguardia)

**Marques de Riscal upategia** (Eltziego)

**Basque Culinary Center** (Donostia)

**Estatuko araudiak aginduta, debekatuta dago elikagaiak erabiltzen diren guneetan animaliak sartzea.**

## KOBAK, IBILBIDEAK ETA LORATEGIAK

**Donejakue Bidea** (Euskadi)
Aire zabaleko bidea da eta ez dago inolako mugaketarik.
Donejakue Bidea ezin aproposagoa da ibilbide luzeak egitera ohituta dauden animaliekin egiteko. Barnealdeko nahiz Kostaldeko Donejakue Bidearen etapak egiteko aukera duzue txakurrak eta biok.

**Inaziotar Bidea**
Aire zabaleko bidea da eta ez dago inolako mugaketarik. Ignazio Loiolakoak, zalduna zela, 1522an Loiolatik Manresara egin zuen bidea oroitzen du. Bidea Ignazio Loiolakoaren jaiotetxean abiatzen da, Azpeitian (Gipuzkoan), eta txakurrarekin egiteko plan bikaina da.

**Santa Katalina Lorategi Botanikoan** (Iruña Oka)
5 kontinenteetako 1.000 landare espezie baino gehiago elkarrekin miresteko aukera duzue. Arabako Lautadako bistak ere zoragarriak dira benetan.

**Pozalaguako kobazuloa** (Karrantza)
< 1 Ordubete.

## JAIALDIAK ETA MERKATUAK

**Zinemaldia** (Donostia)
Debekatuta dago txakurrarekin zineman edo antzokian sartzea baina, hori bai, txakurrarekin kalean zehar ibiltzeko aukera duzu eta batek daki, agian Hollywoodeko izarren batekin topo eta guzti egingo duzu. Dena dela, gogoan izan garai horretan jende asko ibiltzen dela kalean eta, beharbada, ez dela txakur beldurtiekin, urduriekin edo larriekin ibiltzeko unerik onena.

**Jazzaldia** (Donostia) **I Getxo Jazz I Gasteizko Jazzaldia**
Ezin da txakurrarekin sartu kontzertu-guneetara, ez eta hondartzan direnean ere. Nahi baduzu, terraza irekiak dauden eremuak eta kontzertu txikiak edo beste jarduera batzuk egiten diren eremuak aprobetxatu ditzakezu. Halakoetan bai, txakurrarekin joan zaitezke, betiere lotuta badago. Kontuan izan behar duzu, ordea, egun eta ordu batzuetan jende asko bil daitekeela eta, gainera, musikaren bolumena kontuan hartuta, zure txakurrarentzako leku desatseginak izan daitezkeela.

**BBK Live** (Bilbo)
> **5 ordu.** Guztiz debekatuta dago txakurrarekin sartzea eta, baimenduta balego ere, zuzeneko musikaren bolumena nahiz jende uholdea jasanezinak dira txakurrarentzat

**Mundaka Fest: Basque Music&Cook jaialdia** (Mundaka) > **5 ordu.** Guztiz debekatuta dago txakurrarekin sartzea eta, baimenduta balego ere, zuzeneko musikaren bolumena nahiz jende uholdea jasanezinak dira txakurrarentzat.

**Ordiziako azoka** (Ordizia)
< **2 ordu.** Aire zabaleko merkatua da eta, beraz, txakur eta guzti joan zaitezke. Merkatua astean behin egiten da, asteazkenetan, 09:00etatik 13:00etara. Merkatu irekia da eta ez dago txakurrarekin joateko arazorik, jende ugari dabilen eta janaria dagoen lekuetan ibiltzera ohituta badago.

# Dog-friendly garraiobideak

**Renfe (aldiriak)**
www.renfe.com
Tamaina guztietako txakurrak onartzen dira. Garraio-kutxan bidaiatu beharko dute, edo uhalez lotuak eta muturrekoa jarrita. Txakur bat bakarrik bidaiari bakoitzeko.

**Renfe (ibilbide ertain eta luzeak)**
www.renfe.com
10 kg arteko txakurrak joan daitezke, betiere 60x35x35 cm-ko bidaia-kutxa batean (edo txikiagoan) badoaz. Txakur bat bakarrik bidaiari bakoitzeko.

**Euskotren**
www.euskotren.eus
Euskotrenen edozein tamainako txakurrak joan daitezke, baina betiere uhalez lotuta. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrek debekatuta dute sartzea.

**Bizkaibus**
www.bizkaia.eus
Txakurrek bidaiatzeko aukera izango dute, baldin eta 8kg baino gutxiago pisatzen badute eta garraio-kutxa itxi baten barruan badoaz.



# Euskadin txakurrak sartzeari eta edukitzeari buruzko araudia

**Jarraian labur-labur azalduko dizugu Euskadin zure txakurrarekin bidaiatzeko kontuan hartu beharko duzun araudia. Atal honen amaieran, informazio hau lortzeko erabilitako lege eta dekretuen izenak aurkituko dituzu, zehatz-mehatz, nahi baduzu sakonagotik kontsulta ditzazun.**

## Orokorra

Txakurraren arduradunak bere gain hartuko du, halaber, txakurrak eragin litzakeen kalte, galera eta eragozpenen gaineko ardura, nahiz eta txakurrak ihes egin edo txakurra galdu, Kode Zibilaren 1905. artikuluan ezarritakoa betez. Animalia hiriko bide eta gune publikoetan barrena doanean, gehienez 2 metro luzeko kate edo uhal batez lotuta joan beharko du.



## Laguntza-txakurrak

Itsu-txakurrek edo laguntza-txakurrek ikastetxeetan, garraioetan eta gainerako gune publikoetan sartzeko aukera dute, eta beraz, orri hauetan azaldutako politika eta debekuek ez diete eragiten, janariak manipulatzen diren tokietan izan ezik, hala nola upeltegiak, sukaldeak, supermerkatuak, etab.

Horretarako, txakurraren arduradunak une oro eraman beharko du laguntza-txakurra dela egiaztatzen duen dokumentazioa. Eta laguntza-txakurraren "erabiltzaile" gisa identifikatuko da.



## Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak

2025eko maiatzean, honako hauek dira Euskal Herrian arriskutsuak izan daitezkeen arrazak edo arraza tipologiak:

- Pit Bull Terrier (American Pit Bull Terrier barne)
- Staffordshire Bull Terrier.
- American Staffordshire Terrier.
- Rottweiler.
- Dogo Argentinarra.
- Fila Brasileiro.
- Tosa Inu.
- Akita Inu.

Aurreko atalean bildutako arrazen (bereziki, Akita amerikarra, American Bully eta American Pitbull Terrier) arteko gurutzaketen ondorioa diren txakurrak ere arriskutsuak izan daitezke, baita 101/2004 Dekretuaren II. eranskinean bildutako ezaugarri guztiak edo gehienak dauzkaten txakurrak ere.

Horrelako animaliak eraman ahal izateko, arduradunak egiaztatu behar du, ezinbestean, arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edukitzeko indarreko administrazio-lizentziaren jabe dela, eta animalia arriskutsuak izan daitezkeen txakurren erregistroan inskribatuta dagoela, erroldatuta dagoen udalean. Eremu publiko batean pertsona batek horrelako

txakur bat eraman ahalko du, soil-soilik, muturrekoa jarrita eta gehienez bi metro luzeko kate edo uhal ez-luzagarri batez lotuta, eta arnesik erabiltzeko aukerarik ez da izango.

Horrelako arrazetako txakur batekin bidaiatzen baduzu, litekeena da askotariko gune eta lokaletako dog-friendly politika zorrotzagoa izatea zuentzat.



# Pertsonak txakurrekin taberna, jatetxe eta kafetegietan sartzeko:

Oro har, guztiz debekatuta dago txakurrak sartu eta egotea elikagaiak fabrikatu, saldu, biltegiratu, garraiatu eta manipulatzeko lokal edo ibilgailuetan.

Jendearentzat irekitako gainerako establezimenduetako titularrek debekatu ahalko dute, nahierara, txakurrak bertan sartu eta egotea, sarreran debeku hori argi eta garbi adierazita.

Bestela esanda: mota guztietako animaliek debekatuta dute elikagaiak biltegiratu eta manipulatzeko lokaletan (sukaldeak, supermerkatuak…) sartzea. Taberna eta jatetxeetan sar daitezke bezeroen sarreran edo kontsumoguneetan, horretarako debekurik ez dagoelako Euskadiko legeria autonomikoaren arabera. Zenbaitetan udal-agintariek betekizun zorrotzagoak ezarri dituzte Europar Batasuneko, herrialdeko edo autonomia-erkidegoko araudietan ezarritakoak baino.

# Pertsonak txakurrekin upeltegietan sartzeko:



Debekatuta dago txakurrarekin upeltegietako manipulazioko eta upeletako eremuan sartzea, elikagaiak biltegiratu eta manipulatzeko eremutzat hartzen direlako. Eta, aldez aurreko puntuan ikusi dugunez, gune horietan sartzea debekatuta dago, oro har.

***Legeria eta iturriak:***

*7/2023 Legea, animalien eskubideak eta ongizatea babestekoa eta 101/2004 Dekretua, martxoaren 28koa.*

*https://www.boe.es/eli/es/l/2023/03/28/7*

# Ezinbesteko 10ak

Asko dira Euskadi ezinbesteko jomuga bihurtzen duten arrazoiak.
Berehala konturatuko zara bertako jendea eta historia ezagutzen duzunean, hiriek arnasten duten ondarea ikustean, eta, harik eta hobeto, mahai on baten inguruan iruzkintzen duzunean.

### Bilbao



### Donostia



### Vitoria-Gasteiz



### Gernikako Batzar Etxea



### Bizkaia Zubia



### Gaztelugatxeko Doniene



### Urdaibai



### Balenciaga Museoa



### Loiolako Santutegia



### Guardia



www.euskadituristmoa.eus

**EUSKADI**
**BASQUE COUNTRY**

EUSKO JAURLARITZA
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO